


JARDUERA-TXOSTENA
2023



Vital

FUNDACIÓN · FUNDAZIOA

Vital

FUNDACIÓN · FUNDAZIOA

7.485.160 euro

3.000 jarduera baino gehiago

6 jarduera-arlo

200.000 onuradun baino gehiago







FUNDACIÓN · FUNDAZIOA

Vital Fundazioak arabarrekin duen konpromisoari eusten dio, **gardentasunean, kalitatean, berrikuntzan eta etengabeko hobekuntzan** oinarritutako kudeaketa sustatuz. Bere gizarte-lana ikuspegi solidario eta garaikide batetik egiten du, Lurraldearen aurrerapen sozial, ekonomiko eta kulturala bultzatuz eta gizarte hobea eta bidezkoagoa eraikitzen lagunduz.

Baliabideen kudeaketa **arabarren bizi-kalitatea hobetzera** bideratutako proiektuei bultzada ematera zuzentzen du, bereziki **gizarte-programak** babestera, bazterkeriaren eta gaixotasunaren aurka borrokatzen lanean ari direnei lagunduz, **enplegurako prestakuntza eta laneratzea** sustatuz eta **Arabako kultura-sarea** zabaltzen lagunduz.

Ingurumenarekiko konpromisoaren buru da, biztanleen artean **kirola eta osasuna sustatzen** ahalegintzen da, eta gazteen sektorean **ekintzaitzaren, ikerketaren eta berrikuntzaren aldeko apustu** argia du.

Jarduera-eremu oso zabalak hartzen ditu, Nazio Batuen 2030 agendan definitutako **Garapen Jasangarrirako Helburu (GJH) ia guztiekin lerrokatuta** daude; estrategiak partekatzen ditu Lurraldea eraldatzen laguntzeko berarekin batera lan egiten duten erakundeekin eta elkarteekin, eta etorkizun pozgarri baterantz begiratzen du, hezkuntzaren, zientziaren eta ikerketaren erronka berriei erantzunez.



2023an, Vital Fundazioak bere gizarte-ekintzaren jardura hainbat ataletan banatu du: jardura propioa, Lurraldeko elkarte eta erakundeekin sinatu dituen lankidetzaz hitzarmenak, eta laguntza deialdia. Hori guztia jarraian azalduko den eran banatuta:

**JARDUERA
PROPIOAK**
2.9675.158€

Musika, zinema, lehiaketak, erakusketak, ikastaroak, tailerrak, hitzaldiak, campusak, bekak, gizarte-laguntzak, ingurumen-programak, azokak, merkatuak, etab.

**LANKIDETZA
HITZARMENAK**
4.165.067€


Elkarte sozialak, kirol- eta kultura-erakundeak, ikastetxeak, fundazioak, erakundeak, etab

**LAGUNTZAA
DEIALDIAK**
644.935€

6 jardura-arlo: soziala, kulturala, hezkuntza eta ikerketa, enplegua, kirola, ingurumena eta ondarea.

2023an Vital Fundazioak egindako ekarpenen ehunekoak

Lankidetzaz hitzarmenak
4.165.067 €



Jardura propioak
2.675.158 €

Laguntza deialdia
644.935 €



FUNDACIÓN · FUNDAZIOA



Gizarte-bazterketa

Bazterketa-arazoak dituzten eta muturreko zaurgarritasun-egoeretan dauden pertsonen gizarteratzearen aldeko ekintzak garatu eta aukera-berdintasuna sustatzen duten programak babesten ditugu

Desgaitasuna

Desgaitasunen bat duten pertsonen eta haien familien bizi-kalitatea hobetzeko proiektuak bultzatzen dihardugu, ikusgarritasuna ematen lagunduz eta herritarrak kolektibo horren arazoei buruz sentsibilizatuz

Gaixotsuna

Minbiziaren, gaixotasun mentalen, endekapenezko gaixotasunen edo gaixotasun ezgaitzaileen aurkako borroka babesten dugu, kaltetutako pertsonen eta haien ingurunearen egunerokotasuna aurrera eramateko laguntza handiagoa behar baitute, eta osasun-arloko arrerapen berriak babesten ditugu

Gizarte laguntza arloko beste programa batzuk

Adinekoentzako gure laguntza-programez gain, beren ekimenak garatzeko laguntza behar duten erakunde eta elkarte ugariarekin lankidetzan aritzen gara

Genero-berdintasunaren aldeko apustua

Vital Fundazioak, gizonen eta emakumeen arteko berdintasunarekin duen konpromisoan, genero-berdintasunari buruz hitz egiteko eta hausnartzeko ziklo bat hasi zuen 2023an, hitzaldiz, antzerkiz edo musikaz osatua, besteak beste



Gizarte Arloa

Laguntzen dutenei laguntzen diegu, gizartean eragin positiboa eta eraldatzailea duten programak babestuz, baita bazterkeriaren eta pobreziaaren aurka borrokatzen dutenak ere, bizi-kalitatea hobetuz, gaixotasunari eta desgaitasunari ikusgarritasuna emanez eta bizikidetzaren eta gizarte-kohesioaren aldeko apustua eginez

1.727.173 €

Gizarte-bazterketaren aurkako programak

Programa horien bidez, Vital Fundazioak gehien behar dutenei laguntzen die. Muturreko zaugarritasun-egoeretan dauden pertsonak, beren kabuz gizarteratu ahal izateko aukerarik ez dutenak, eta arreta berezia eskaintzen die babesik gabeko kolektiboak, hala nola haurrei, emakumei edo immigra-tzailei.

BERAKAH

Zailtasunak dituzten eta baliabide ekonomikorik ez duten pertsonen eta senideei harrera eta laguntza emateko elkarteak. Pertsonen premia oinarritzkoenak eta berehalakoak asetzen dituzte, dagoeneko lanean diharduten erakunde-laguntzen sareak artatu ditzaiz.



- 4.207 pertsona artatu dira Betania egoitzan
- 127 pertsona hartu dira eguneko Kafe beroan
- 47.579 menu urtean, Zugaz jantokian zerbitzatuak
- 135 familia artatu dira, Tabgha despentsako erosketaren bidez
- 80 gosari eta 32 askari, umeentzako egunero
- 92 pertsona hartu dira Belen Etxean eta Ain Karem Etxean
- 68 mikrokreditu eman dira (49.695 €)
- 89 pertsona artatu dira 'Giltza etxebizitza' eta '13 etxe' programetan

Entzute aktiboko zerbitzuak, oinarritzko elikadura, lege-aholkularitza, arreta psikologikoa, prestakuntza eta autoenplegua, mikrokredituak ematea, etxebizitza-kontuetarako bitartekaritza, boluntarioen prestakuntza, kaleko taldeak, familia-harrera, aisialdiko taldeak eta eskola-laguntza, gaztelera-erakundeak eta arropategia, etab.

GURUTZE GORRIA

Zaugarritasun handiko egoeran dauden pertsonak ahalduzko programa. Oinarritzko premien estaldura gaitzen duten alderdiez arduratzen da, eta izaera integralagoko esku-hartzea du helburu, pertsona horiek bizitza ekonomiko, sozial eta kulturean parte hartzeko beharrezkoak diren aukerak eta baliabideak izan ditzaten.

- 2.736 prestazio ekonomiko horniduretarako eta oinarritzko beharrezkoentarako
- 856 ondasun-emate (babes-produktuak, sanitarioak, elikagaiak, jostailuak, material didaktikoa eta higie-ne-produktuak)



JEIKI FUNDAZIOA

Drogaren mende dauden pertsonen laguntzea beren adizkioak gaitzen, baita prebentzio-, laguntza- eta gizarteratze-programak ere, ikuspegi terapeutiko integral batetik.

HARRERA zentroa: Bertan egiten dira tratamendu-eskaerari buruzko lehenengo informazio-elkarrizketak. Tratamendua egoitzan (**Gizakia Helburu**) edo anbulatorioa (**Aukera**) izan daiteke.

HAZGARRI, prebentzio- eta laguntza-programa nerabe eta gazteentzat (21 urte arte), egoera zailean bizi diren gurasoei arreta ematea, eta gizarte-bitartekari laguntza ematea. Bisitak egiten dira, kontsumo hasiberriak direla-eta, esku-hartze beharra hautematen den ikastetxetara.

HARRERA ZENTROA:

- 200 paziente artatu dira eta 81 familia
- 3.430 esku-hartze egin dira

HAZGARRI:

- 581 gazte eta nerabe, 19 heldu eta 64 familia artatu dira
- 1.683 esku-hartze egin dira
- 283 koordinazio egin dira

CÁRITAS

Premia-egoeretan dauden pertsoneri laguntzea, pobreei zerbitzua emanez, haien bizi-kalitatea eta gizarteratzea hobetzen lagunduko duen gizarte bidezkoagoa eta solidarioagoa aldarrikatzeko.



- 452 pertsonak jaso zuten prestakuntza (hizkuntza eta lanbide-gaitasunak)
- 250 pertsonak jaso zuten laguntza beren curriculum egiteko eta lan-mundura sartzeko

Prestakuntza-zentroan eremu pertsonaletik lantzen dira marjinazio-arazoak, hizkuntzari eta lanbide-gaitasunei buruzko prestakuntza eskaintzen da, bazterketa-egoeran dauden pertsonen enpresetara jauzi egiteko aukera izan dezaten.

ELIKAGAIEN BANKUA

Elikagaiak alferrik galtzea saihestea, soberako elikagaiak eta dirua biltzea, beharrezkoak diren zenbait elikagai erosteko kupoien bidez, eta gehien behar dutenen artean banatzea.

BILKETA HANDIA

- 332.104 € (elikagaiak, bonu bihurtzekoak eta dirua batuz)
- 8.279 pertsona eta 3.291 familia artatu dira

Banaketako 29 erakunde laguntzailek beren lokalean banatzen diote esleitutako familia bakoitzari; 19 kontsumo-elkartek jasotzen dituzte elikagai galkorrak, eta harrera-zentroei, egoitzei eta jantoki sozialei ematen dizkiete. Gainera, azaroan Elikagaien Bilketa Handia egiten da.

GOIAN ALDE ZAHARRERA

Goian Gasteizko Alde Zaharreko proiektu sozio-komunitarioa da, auzotasunaren eraikuntza soziala helburu duena. Norberaren nortasuna eraikitzeko, ezinbestekoa da auzo baten, leku baten, ingurune baten parte sentitzea, eta, era berean, beharrezkoa da inplikatzeko eta toki horren bizikidetzan eragile izateko.

2023an zehar, Ongi Etorri Alde Zaharrera proiektuak laguntza soziokomunitarioko prozesuak eta bizilagunen arteko elkarrekiko aitortzan oinarritutako bizikidetzaren errazteko agertokiak bultzatzen jarraitu du.

Prozesu jarraituak:

- Futbola (+18 urtetik gorakoentzat). Landatxon habitatuz.
- Auzoko ile-apaindegia.
- Alde Zaharretik mendira.
- Alde Zaharra bizikidetzaren mahaia.
- Arana bizikidetzaren mahaia.
- Auzoko/hiriko ibilbideak.
- Bazterketa-egoeran dauden gazteen diagnostikoa.
- Biltzen.
- Koordinazioak, aurkezpenak eta bestelako lan-mahaia.
- Banakako laguntasunak.



Ekintza zehatzak:

- Inauteriak
- Truke azoka
- Informazio komunitarioa zabaltzea
- M. Aprender a convivir' dokumentala.
- Ramadam league
- Poetak maiatzean
- Zaharraz Harro. Auzoko jaiak
- Agharas bisitatzea
- Erdi Aroko azoka
- Bizilagunak

ENTRETANTO ENTRETENTE

Elkarteak pentsamendu kritikoa eta bizikidetzaren positiboa sustatu nahi ditu, askotariko pertsonen arteko harremanak erraztuko dituzten topaguneen bidez, Arabako Errioxako Kuadrillan bizikidetzaren sustatzeko egiten diren prozesuekin koordinatuta.

Zuzeneko 280 onuradun izan dira guztira, eta zeharkako 840 onuradun inguru izan direla kalkulatu da. Nabarmenezkoa da parte-hartzaileen artean Marokotik, Pakistandik, Aljeriatik, Ukrainatik, Nigeriatik, Venezuelatik eta Espainiatik etorritako pertsonak zeudela



KUENTAME

Proiektu honek gabeziak betetzen laguntzen die gizartetik baztertuta geratzeko arriskuan dauden pertsonen eta familiei. Gabezia horiek banan-banan arrisku-faktore izan ez arren, haietako batzuk elkartzen badira, pertsona horiek dituzten bizi-baldintzak kontuan izanda, babesgabetasun-arriskua areagotu daiteke.

Etengabeko arreta-zerbitzu integrala eta pertsona ardatz duena garatzen dute, prebentzioko eta gizarte-, hezkuntza- eta lan-arloko orientazioko esku-hartze praktikoaren bitartez. Zerbitzu horren helburua da pertsonen gaitasunak indartzea, haien trebetasunak hobetzea eta tresna espezifikoak

eskaintzea, babesgabetasun edo gizarte-bazterketako arriskua areagotu dezaketen hainbat gabezia betetzen laguntzeko.

2023an, 478 pertsona artatu dituzte guztira (emakumeak, gizonak eta familiak).

- 309 pertsonari arreta erregularra eta jarraitua ematen zaie oraindik ere.
- 169 pertsona joan ziren lehen aldiz pertsona ardatz duen arreta integraleko zerbitzura.

HONAKO HAUEK ERE GIZARTE-BAZTERKETAREN AURKA BORROKATZEN DUTE



AGLE (Loremaitea programa, guraso bakarreko familietako adingabeen laguntzeko); **ZUBIA GURUTZATZEN EKIMEN-ETXEA** (Gizarteratzeko eta laneratzeko tailerrak egiteko elkarte); **ADSI FUNDAZIOA** (Esku-hartze soziala egoera ahulean dauden pertsonekin); **CORAZONISTAS FUNDAZIOA** (Kolektibo behartsuen hezkuntzaren eta justiziaren alde); **GIZABIDEA** (Presoak defendatzeko elkarte); **GIZARTERAKO** (Emakume prostituta hartzeko, artatzeko eta orientatzeko Arabako elkarte); **HOGAR ALAVÉS** (Gaixotasun mentala duten pertsonak errehabilitatzeko ongintza- eta kultura-elkarte); **INSOLA** (Aldi baterako etxebizitzaren proiektua); **SIDALAVA** (Hiesaren Aurkako Herritarren Arabako Batzordea); **ITXAROPENAREN TELEFONOA** (Itxaropenaren eta adiskidetasunaren telefonoaren Arabako elkarte).

Desgaitasuna gainditzeko programak

Mendekotasuna, desgaitasuna edo dibertsitate funtzionala duten pertsonen autonomia eta arreta sustatzen lan egiten duten elkarteek laguntza ematen die Vital Fundazioak. Herritarrek pertsona horien arazoaren inguruan sentsibilizatzen laguntzen du, eta aisialdi edo denbora libreko tailerrak eta programak babesten ditu, zailtasun horiek dituzten pertsonen bizi-kalitatea hobetzeko.

AUTISMO ARABA

AEN (Autismoaren Espektroko Nahasmendua) duten pertsonen eta haien familien bizi-kalitatea hobetzea, haien bizi-zikloan arreta pertsonalizatua, integrala eta kalitatekoa bermatuz.

‘Aisialdi terapeutikoaren bidezko atsedendialdiak’ proiektuari esker, AEN duten pertsonak aisialdi jardueraz goza dezakete helburu terapeutikoekin ere; eta familiei beharrezko atsedena eskaini.

2023an, **8 asteburu** egin dira, eta **15 atsedeen-jarduera** egin dira.



APDEMA

Desgaitasun intelektuala duten pertsonen eta haien familien bizi-kalitatea hobetzea, familiaren laguntza, zerbitzuen kalitatea eta gizarte-mentalizazioa ardatz hartuta.

Desgaitasun intelektuala duten 45 urtetik gorako pertsonak elkartzeko eta elkarerraginean egoteko espazioa hainbat pertsonak konfinamendu-egoeraren ondoren normaltasunera itzultzeko, haien denbora partekatzeko eta gizarte-harremanak ezartzeko dituzten behar eta eskaeretatik sortutako proiektu bat da, beren bizi-proiektuekin jarraitu ahal izateko, trebetasun berriak eskuratu edo deskubritzeko eta komunitateak sustatutako jardueretan sartzen laguntzeko.

2023ko udazkenean, adimen-desgaitasuna duten 45 urtetik gorako hamalau pertsona (4 emakume eta 10 gizon) artatu dituzte bideratzaile bik.

Zahartze aktiboko programa, arreta inklusiboko eta integraleko zerbitzua, pandemiaren osteko bakardade sentsazioa murrizteko, bere denbora aktiboki betetzeko eta bere bizi kalitatea eta banakako proiektuak hobetzeko jarduerak egiteko balio du.

ASPACE



Garun-paralisia eta antzeko beste desgaitasun batzuk dituzten pertsonak ikusaraztea, haien duintasuna eta eskubideak defendatuz, proiektu parte-hartzaileen eta inklusiboen bidez, eta beti balioetsiz herritartasun osoa lortzeko behar diren laguntzak.

Tailer eta jardura artistikoak, aisialdiko programa bat – haurrentzako, gazteentzako eta helduentzako udalekuak barne – eta dibulgazio- eta sentsibilizazio-lanak garatzen dituzte.

- 23 pertsonak hartu zuten parte tailer artistikoetan
- Garun-paralisia duten 43 pertsona udalekuetan

Desgaitasuna gainditzeko lanean diharduten beste elkarte batzuk:

ASPASOR (Arabako gorrei zuzendutako lan-bitartekotzako elkarte); **DOWN ARABA ISABEL ORBE** (Down sindromea duten pertsonen erabateko gizarteratzea lortzeko lan egiten duen elkarte); **USOA BABES FUNDAZIOA** (Babesgabetasun-egoeran dauden desgaitasun intelektuala duten pertsonak babesteko fundazioa); **HAR EMAN** (Desgaitasun intelektuala duten eta ez duten pertsonen gizarteratzea sustatzeko elkarte); **ONCE** (Itsuen artean jarduerak eta Vitoria-Gasteizko kaskabilo-lasterketa bultzatzeko elkarte); **TALUR** (Desgaitasun intelektuala duten pertsonentzako aisialdi eta denbora libreko elkarte, 'Utzi laguntzen, ni ere existitzen naiz eta' programaren eskutik).

Gaixotasunaren aurkako laguntza-programak

Gaixotasunaren aurka borrokatzen duten elkarteek laguntzen diegu eta ahaleginak areagotzen ditugu hobekuntzak lortzeko prebentzioan, tratamenduetan eta ikerketan. Solidarioak gara gaitzei buruzko sentsibilizazio- eta prebentzio-ekimenekin, baita pazienteei laguntzeko ekimenekin ere.

MINBIZIAREN AURKA

Minbiziaren aurkako borroka gaixotasuna normalizatzea eskatzen du, eta herritarrak prebentzio-neurrien inguruan sentsibilizatzea. Vital Fundazioak lankidetzeta estua du duela urte batzuetatik Minbiziaren Aurkako Espainiako Elkartearekin Araban (**AECC**), Emakume Mastektomizatuen Elkartearekin (**ASAMMA**) eta Haur Minbizidunen Gurasoen Arabako Elkartearekin (**ASPANAFOA**).



Fundazioaren laguntza honako hauetara bideratu da: gaixorik dauden pertsonen eta haien senideei laguntza soziala eta arreta emozionala emateko programak; gaixotasunaren zabalkunde eta sentsibilizazio programak, esaterako **Minbiziaren Aurkako Gasteizko, Amurrioko, Oiongo eta Aguraingo Martxa**; eta **Bularreko Minbiziaren aurkako Lasterketa Solidarioa**. Bildutako dirua ikerketara bideratu da kasu bietan.

- **Minbiziaren aurkako martxa: Vitoria-Gasteiz: 2.500 pertsona**
- **Amurrio: 550 pertsona**
- **Oion: 250 pertsona**
- **Agurain: 320 pertsona**
- **Bularreko minbiziaren aurkako lasterketa solidarioa: 3.000 pertsona**

GAIXOTASUN MENTALEN AURKA

ARTATUTAKO PERTSONAK

- **AFARABA: 1.110**
- **ASAFES: 1.000**
- **ASASAM: 198**
- **OREKABIDE: 80**
- **ACABE: 329**

Gaixotasun mentalak dituzten pertsonen eta haien familien bizi-kalitatea hobetuko duen integrazio-eta normalizazio-etorkizunarekin konprometituta.

Kalitatezko arreta bilatzen duten programak babesten ditugu, eta gaixotasun horien inguruan sentsibilizatzeko eta zabaltzeko progra-

mak ere bai. Baita aisialdikoak eta denbora librekoak ere, horiek sustatzen dituzten Arabako elkarteekin lankidetzaz estuan arituz, hala nola **AFARABA**, (Alzheimerre eta beste dementzia batzuk dituzten pertsonen senideen eta lagunaren Arabako Elkarte); **ASAFES** (Gaixotasun mentala duten Pertsonen eta Senideen Arabako Elkarte); **ASASAM** (Gaixo Psikikoen eta Senideen Aiarako Elkarte); **OREKABIDE** (Nahasmendu Bipolarreko eta Depresioko Gaixoen eta Senideen Iruña Okako Elkarte) edo **ACABE** (Anorexia eta Bulimiaren aurkako Arabako Elkarte).



pen-nahasmenduak dituzten hurrei arreta emateko elkarte) eta **TEL EUSKADI** (Hizkuntzaren Nahaste Espezifikokoak dituzten Pertsonen Familien eta Lagunen Elkarte).

ENDEKAPENEZKO GAIXOTASUNEN EDO GAIXOTASUN MUGATZAILEEN AURKA

Endekapenezko gaixotasunak edo kaltetuen eguneroko bizitza zailtzen duten gaixotasunak ikusaraztera bideratutako programak eta proiektuak babesten ditugu, eta ikerketara bideratutako funtsak biltzeko ekintzak babesten ditugu.

AAL (Laringektomizatuen Arabako Elkarte); **ACCU ÁLAVA** (Crohn eta Kolitis Ultzeraduna duten Gaixoen Arabako Elkarte); **ADALAVA** (Diabetikoen Arabako Elkarte); **ADEAR** (Artritis Erreumatoide eta Espondilitis Ankilosantearen Arabako Elkarte); **ADELA** (Alboko Esklerosi Amiotrofikoaren Arabako Elkarte); **ADELES** (Lupus-gaixoen Arabako Elkarte); **ADELPRISE** (Linfedema primarioa eta sekundarioa duten gaixoen elkarte); **AEFAT** (Ataxia Telangiectasia Familiaren Espainiako Elkarte); **AEMAR** (Esklerosi Anizkoitzaren Arabako Elkarte)

ALCER (Giltzurrunetako Gaixoen Arabako Elkarte); **ARNASA ARABA** (Fibrosi Kistikoaren Arabako Elkarte); **ASAFIMA** (Fibromialgia eta Neke Kronikoaren Sindromearen Arabako Elkarte); **ASOPARA** (Parkinson Arabako Elkarte); **ARENE** (Gaixo Neuromuskularren Arabako Elkarte); **ATECE** (Hartutako Kalte Zerebralaren Elkarte); **MUGARIK GABEKO BIHOTZA** (Gaixo kardiobaskularren eta haien familien bizi-kalitatea hobetzeko elkarte); **EZEBA** (Zeliakoen eta haien senideen Arabako elkarte); **KULUNKA** (Gara-

Genero Berdintasunaren Zikloa

Vital Fundazioak, gizonen eta emakumeen arteko berdintasunarekin duen konpromisoan, genero-berdintasunari buruz hitz egiteko eta hausnartzeko ziklo bat hasi zuen 2023an, hitzaldiz, antzerkiz edo musikaz osatua, besteak beste.

Zikloa martxoan hasi zen **Dora Gálvezekin**, Gasteizko emakume biktimekiko Berdintasunerako eta Esku-hartzerako hezitzailearekin. Burusoil duela hiru urtetik, beldurrez ateratzen zen kalera, eta horregatik diskriminatzen eta tratatu txarrak ematen zizkion gizaratearekin egin zuen topo. Horrela jaio zen '**Sexismo por los pelos**', bere historia kontatzen duen proiektua, eta

estetika sexistaren ondorioz galduta eta lotsatuta sentitzen diren emakume guztiei luzatutako eskua da. Ordubetea zehar, Gálvezek azalpenezko hitzaldi dinamiko eman zuen, material fotografikoen, diapositiben eta talde-dinamiken laguntzarekin, indarkeria estetikoaren inguruan hausnartzeko, hala nola genero-indarkeria edo estereotipoak eta emakumeen osasun mentala.

Hilabetea aurrera joan zen Liher-en **‘Hemen herensugeak daude’** kontzertu akustikoaren eskutik. Emakumearen maitasuna, indarkeria eta bakardadea ardatz dituen proiektua da. Abesti eta kantu artean, Liher taldeko kideek, Lide Hermandok (ahotsa eta gitarra) eta Iñigo Etxarrik (gitarra eta koruak), disko kontzeptual honen sorkuntza eta garapen prozesuaren nondik norakoak azaldu zituzten, eta nola heldu zioten historiak feminismoarekin eta autodefena

- 8 jardunaldi programatuta
- 1.120 pertsona bertaratu ziren

tsarekin duen harremanari, emakume bortxatu batek bikotekidea eta, aldi berean, erasotzailea denaren aurka indarkeria erabiltzeko erabakia hartzearen arrazoiari buruzko gogoeta eginez.

Zikloan zinea ere izan zen, **‘Volar’** dokumentalaren bidez. Lan horrek Bertha Gaztelumendi Euskal Herriko Unibertsitateko Giza Eskubideen Katedrako ikerlaria du zuzendari eta Emakunde ere bultzatu zuen. Film hori Donostiako



Nazioarteko Zinemaldian aurkeztu zen, eta Euskal Herrian bizi eta lan egiten duten hainbat lanbide eta estatusetako bederatzik emakumeren historia kontatzen du. Emakume horiek genero indarkeriatik bizirik atera dira eta euren infernu intimoa kontatzen dute.

Silvia Núñezek eta Xabier Odriozolak ON:GIZ berdintasunaren aldeko elkartearen (2022ko Emakunde Saria) izandako esperientzia kontatu zuten, berdintasunerako bide pertsonal eta kolektiboari buruzko galderei erantzunez. **‘Gizonak beren sexismoa zalantzan jartzen ... eta emakumeak ere**



bai?’ ekimenak gogoeta egiten du ea gizonak genero-indarkeriaren arazo nagusia izanik, konponbidearen parte ere izan daitezkeen, eta emakumeak zer egin behar duten, ea euren energia gizonengandik defendatzeko jarri behar al duten edo beren sexismoa berrikusteko.

Martxoko azken hitzordua **‘Les Bobé bobé’** eta bere antzezlanarekin izan zen **‘(H)ondoko Gela - La otra habitación’**. Umorearen bidez, pertsonok geureak balira bezala hartzen ditugun rolei buruz hausnartu zuten. Rol horiek oso markatuak izan dira eta izaten jarraitzen dute generoaren arloan zineman, telebistan eta ordainpeko plataforma berrietan ikusten ditugun film eta telesailetan. Umorez, trama nagusia misteriozko eta suspensezko zineman oinarrituta dago, eta generoari dagozkion osagai guztiak ditu: ohiko susmagarriak, ikerketak, krimenak, errudun faltsuak... Emaitza komedia beltz absurdoa da. Plano erreala bat (non hilketa bat egon den) eta hainbat plano paralelo eta metaforiko nahasten dira bertan, hitz egin nahi diren gaiak absurdoa eta barre-algara ahalbidetuko duen distantzia batetik lantzeko balio dutenak.

Prostituzioaren arazoa izan zen ‘Genero Berdintasuna’ zikloaren hitzordu berrirako aukeratu zen gaia, uda ostean. Fenomeno horri bere ikuspegi juridiko eta sozialetik aurre egin zitzaion hitzaldi batean, Gizarterako elkartearen eskutik. Hizlariak honako hauek izan ziren: Miren Ortubay abokatu eta kriminologoa, Zigor Zuzenbidean doktorea eta EHUko irakaslea, genero indarkerian eta presoaren eskubideetan aditua, ikuspegi juridikoaz arduratu zena; eta Laura Prieto Oblatas Bilbaoko gizarte langilea, arlo sozialaz arduratu zena. Aurkezpenaren ondoren, eztabaida egongo zen.

Gordofobia eta gorputzaren onarpenera izan zen genero-berdintasunaren zikloko urteko azken hiruhilekoan landutako hurrengo gaia, ekimen biren bidez.

Lehendabizikoa **‘Gordas’** antzezlanaren izan zen, eta horren arrakasta ikusita, Vital Fundazioak bigarren emanaldi bat antolatu zuen. Antzezlanaren ospari, erlijioari, maitasunari, adiskidetasunari eta fisikoari buruzko komedia lotsagabea da. Carlos Mesak idatzi eta zuzendu du, eta Teresa López eta Mara Jiménez sare sozialetako ‘bodypositive’ mugimenduen erreferenteak diren aktoreek antzeztu zuten. Antzezlanean 10 pertsonaiaren azalean sartzen dira egoera zen-



tzugabeei aurre egiteko, azidotasunez beteak eta umorea borrokarako arma bihurtzen dutenak. Estetika oso zaindua du ‘Gordas’ lanak eta gure gizartean oso presente dagoen baina eszenatoki batean aitzindaria den gai bat jorratzen du: fisikoa, gizentasuna eta onarpen soziala.

Azaroan, Paula Fernández sare sozialetako edukien sortzaile ezagun gasteiztarrak eta Elsa Fernández ACABEko integratzaile sozialak **'Hitz egin dezagun lodifobiari eta EPNri buruz'** hitzaldia eskaini zuten Vital Fundazioa Kulturunean.

Gizarte laguntza arloko beste programa batzuk

Vital Fundazioak hiru laguntza programa propio garatzen ditu: Vitalquiler eta 60 urtetik gorakoentzako laguntza-mota bi. Gainera, gure lurraldeko elkarte-sarekoak diren eta beste premia batzuei erantzuten dieten beste erakunde batzuen lana babesten du.

- 380 etxebizitza
- 153.774 euro diru-laguntzatan
- 115 familia baino gehiago artatu dira
- Batez beste 1.337 euro urtean
- Okupazioaren % 100

VITALQUILER

Vitalquiler programa aitzindaria da, gizarte-izaera sakonekoa, etxebizitza bat izateko zailtasunak dituzten pertsonentzat. Programa honek alokairu-erregimeneko etxebizitza bat eskuratzen eta mantentzen laguntzen die gure lurraldeko biztanle-sektoreei, diruz lagundutako alokairuak eskainiz, lan-merkatuan finkatzen diren bitartean. Errenta- eta erroldatze-baldintzak betez gero, eskatzen duten pertsonak etxebizitza duina arrazoizko prezioan eskuratzeko aukera izan dezakete.

+60 LAGUNTZA PROGRAMAK

Vital Fundazioak diru-laguntzak eta aholkularitza eskaintzen ditu 60 urtetik gorako pertsonen bizi-kalitatea hobetzeko eta haien autonomia errazteko. **Bainugelak egokitzeko programari** esker, eskatzaileek beren etxebizitzetan egokitzapen integrareko obrak egin ditzakete, bainuontzien ordez dutxak, manpara egokituak eta laguntza-elementuak instalatuz. **Audifonoak erosteko edo hortz-tratamendu funtzionalak egiteko laguntza-programari** esker, beren errentaren arabera, 60 urtetik gorakoek era horretan egin diezaiekete aurre horrelako artikuluek dakartzaten kostuei.

+60 laguntza programak	Eskaerak	Diru-laguntzak
Bainugelak Egokitzeko Programa	29	37.328 €
Audifono eta Hortz-Tratamenduen Programa	141	73.019 €
Guztira	170	110.347 €

Proiektu sozialak dituzten beste elkarte batzuk:

AMAPASE (Guraso Bananduen Arabako Elkarte); **ARABARNEE** (Hezkuntza-premia bereziak dituzten haurren gurasoen elkarte); **ASCUDEAN** (Adinekoak eta mendekotasuna duten pertsonak zaintzen dituzten senideen elkarte); **BORONDATE ONA/BUENA VOLUNTAD** (Adinekoen egoitzetan, geriatrikoetan eta desgaituentzako zentroetan animazio-jarduerak egiten dituen elkarte) eta **IKIRIKI** (Ongizate psikosoziala eta animaliekiko eta naturarekiko elkarreragina sustatzeko elkarte).



Vital

FUNDACIÓN · FUNDAZIOA



Erakusketak

Artea publiko zabalarengana hurbiltzen dugu, talentu berrien sorkuntzak nahiz artista ezagunen lanak erakutsiz

Kultura jarduerak

Musika, zinema, antzerkia, hitzaldiak, ikastaroak eta tailerrak gure aretoetan. Programa propioak eta lagapenak, kulturarekiko elkargune izan dadila ahalbidetuz

Kultura berrikuntza

Ideia-laborategiak eta arte-diziplina nahiz arte-hizkuntza berriak babestuz lan egiten dugu, abangoardiako kultura-jarduera berriak sortzen lagunduz



The background of the entire page is a vibrant watercolor painting. In the upper left corner, there are several rectangular paint palettes containing various colors: yellow, orange, and red. The rest of the background is a soft, abstract wash of colors including yellow, orange, red, green, blue, and purple, creating a textured and artistic feel.

Kultura Arloa

Artea eta kultura defendatzen ditugu, gizartea eraldatzeko adierazpen-tresna baitira. Era berean, beste esperientzia eta ikaskuntza batzuekiko topagune eta erreferentziagune izan nahi dugu, pertsonen artean harmonia, tolerantzia eta ulermen handiagoa lor dadin.

1.728.797 €

Erakusketak

Vital Fundazioa (Posta kalea 13-15) erakusketa zentroak berrikuntza prozesu integral bati ekin zion 2023an, eta ateak itxi zizkion publikoari eraberritze lanen ondorioz. Hala eta guztiz ere, espazioak erakusketa-proposamenaren zati bati eutsi eta erakusketa bi egin ziren

UMBRA Light Festival

UMBRA Light Festival Vitoria-Gasteiz hirugarren edizioa egin zuen, Estatuko eta nazioarteko erreferente gisa sendotzea helburu, light art eta argiztapen jaialdien eremuko arlo esperimental, teknologiko eta sozialean.

ARGIA 3 Kultura Elkarteak komisariatu zuen, eta light art arloan ospe aitortua duten Estatuko eta nazioarteko artista entzutetsuek hartu zuten parte.

Vital Fundazioak UMBRA Light Festival jaialdiaren aldeko apustua indartu zuen 2023an, hiru instalazio ikusgarri bildu zituen erakusketa berezi baten eskutik: **'Core'** (bihotza edo nukleoa), '1024 architecture' delakoak diseinatua; Robyn Moody artista kanadarraren **'Wave interference'** lana; eta Juan Gómez Cornejoren **'Fragmentos del alma'**.

Erakusketa otsailaren 9tik 26ra egon zen zabalik eta 10.000 bisitari inguru bildu zituen..



Gerra eta denbora



Espazioa elkarteak eta Arabako sortzaileen mugimendu batek sustatutako **60 artistaren** erakusketa kolektibo bat, Errusiak Ukraina inbaditu zueneko urteurrenean kontzientziak mobilizatu eta gatazka belikoak arbuiatu nahi dituen.

Erakusketa otsailaren 24tik martxoaren 19ra bitartean izan zen ikusgai, eta asmo handiko proiektu baten parte izan zen. 30 ekitaldi inguru izan zituen aldi berean, Arabako hiriburuko hainbat espaziotan. Ekitaldi horiek kontzeptu bi batzen zituzten: denbora eta gerra, pintura, eskultura, argazkilaritza, poesia, musika, antzerkia, dantza edo performancearen bidez.

Erakusketa ehun artista eta sortzaile baino gehiagoren ekimenean kokatu zen, profesionalak eta amateurrak, hainbat alorretakoak, hala nola sorkuntza plastikoa, poesia edo musika, arte kritikari, bakezale, filosofo, herritar eta hiritarrekin batera. Orotara **4.300 pertsonak** bisitatu zuten erakusketa.

Kordoi Etxea

Vital Fundazioaren egoitza den XV. mendeko eraikin gotiko-zibil enblematiko honek **Fundazioaren ondareko piezak biltzen dituen erakusketa bikaina** hartzen du etengabe: interes artistikoko altzariak, antzinako pintura eta eskulturak, letoizko iturri zirkularrak, limosna-platerak izenez ere ezagunak, eta jatorri askotako zeramikak. Erakusketa dorre-gotorlekuaren inguruan eta lubanarroan dago.



Kultura jarduerak

Vital Fundazioak kultura-agenda garrantzitsua du urtean zehar, eta erakundeak zuzenean garatzen du Vital Fundazioa Kulturunean (Bakea kalea 5, Dendarabako 1. solairua), baita beste gune batzuetan ere, lurraldeko kultura-eragileekin lankidetzan.

- 286 ekitaldi-jardunaldi
- 27.000 parte-hartzaile

2023an, 286 jardunaldi egin ziren, eta horietatik 76 Vital Fundazioak antolatatu zituen zuzenean.

Astearte Musikalak



- 17 kontzertu
- 3.665 ikusle

Vital Fundazioak duela hiru hamarkada luzetik hona etenik gabe antolatutako ganbera-musikaren lurraldeko ziklorik garrantzitsuena.

Azarotik martxora bitartean, asteartero, interprete gazteen, artista ospetsuen, bakarlariren, bikoteen, hirukoteen, laukoteen eta abarren kontzertuak, eta baita estatuan eta nazioartean ospe handia duen orkestraren bat ere, izaten dira Vital Fundazioa Kulturunea aretoan.

Jazz Vital

Jazz Vital kontzertuen zazpigarren edizioak zikloa berreszten du jazz zaleentzako urteroko hitzorduetako bat izateko asmoan, Arabari hain lotuta dagoen musika genero honen hedapenean lagunduz.

Edizio honetan lau kontzertu programatu ziren Lurraldearekin modu berezian konektatutako artista sorta batekin, hemen jaio, ikasi edo bizi izan direlako.

Berrikuntza gisa, emanaldietako bat kanpoan egin zen, Andre Maria Zuriaren plazan. Gainerako emanaldiak Vital Fundazioa Kulturunean egin ziren, 300 ikusle ingururekin.



Euskal Zinemaren Astea

Duela 39 urtetik hona, Euskal Zinemaren Astea urtero egiten den topagunea da. Bertan, industria zinematografikoa eta publikoa elkarrekin aritzen dira gure herrian egindako zinemarik onenaren inguruan.

Otsailean burutu da Vital Fundazioa Kulturunean. Paul Urkijoren 'Irati' izan da film luze onena, Beatriz de Silvaren 'Tula' film labur onena eta David Pérez Sañudo zuzendariak irabazi du 'Gutariko bat' saria.

- 6 film luze
- 5 film labur
- 1.600 ikusle +




Euskal Zinema Dokumentalaren Astea

Ekimen honek genero dokumentalari ematen dio protagonismoa eta gaurkotasuna nahiz kalitate ziklo hau sendotzen joan dira.

Bederatzigarren edizioan, lau dokumental luze eman dira Vital Fundazioa Kulturunean eta beste bat Kuartangon, hainbat gairi buruzkoak, hala nola mendia, literatura, iragaitzako migratzaileak edo Bingen Mendizabal musikariaren bizitza.

- 5 dokumental luze
- 342 ikusle



Kulturuneako kontzertuak

Vital Fundazioaren kultura guneak hainbat musika edo entretenimendu proposamen jaso ditu urtean zehar:

- Olatz Salvadorren kontzertua – 23/01/27 – Beteta, 268 ikusle
- Judit Neddermannen kontzertua – 23/06/09 – 169 parte-hartzaile
- Julen Axperen bakarrizketa – Umorea – Beteta
- Cadena Dialen eskutik Efecto Pasillo taldearen kontzertu bat antolatzen maiatzaren 31n. 250 pertsona baino gehiago egon ziren.



Dazz Jazz

Dazz Jazz jaialdiak bere VIII. edizioa bete du Vital Fundazioa Kulturunean, lehen mailako 5 kontzerturen eskutik, urrian. Joyce Elaine Yuille + Elio Coppola, Toni Tixier Trio, Francesco Ciniglio, Antonio Lizan Quintet eta Pablo Martin Caminero Quinteten emanaldiak izan dira.



DAZZ JAZZ

- 8 kontzertu
- 1.886 ikusle

Dazz Jazzen eskutik, baina jaialditik kanpo, honako hauek aritu ziren Vital Fundazioa Kulturunean: Julian Maeso Organ Sextet; Juan Sebastian Vazquez Trio; eta Josemi Carmona, Javier Colina & Bandolero. Chano Dominguezek eta Martiriok 'Coplas de madrugada' beren ikuskizunaren 25 urteak ospatu zituzten.

Mendi Tour

Mendiari buruzko nazioarteko zinematik onenak bere lekua du Vital Fundazioa Kulturunean. Mendi Film nazioarteko jaialdiko film onenen zirkuitu ibiltariak mendiko, abenturako, muturreko kiroletako eta naturako 13 film zirrargarri erakutsi ditu Vitoria-Gasteizen, 11. edizioan.

- 13 film
- 973 ikusle



ICOFF jaialdia



Gasteizen egiten den Film Laburren Nazioarteko Jaialdia, iCOFF-Gasteiz, munduko film labur onenak Vitoria-Gasteizera ekartzeko asmoz jaio zen.

- 44 film labur
- 1.261 ikusle

Vital Fundazioa du babesle nagusia eta zuzendaritza artistikoaren buru Kepa Sojo eta Sonia Pacios zinemagile arabarrak dira.

Bigarren edizio honek ikusleen interesa izan du, OFIZIALA saillean edukiera ia osoa bete da eta zinemako profesionalen laguntza garrantzitsua izan du. ICOFF-GASTEIZ Sari Nagusia Estibaliz Urresolaren CUERDAS film laburrari eman zaio.



Beste musika-ekitaldi batzuk



Euskadiko Orkestraren (Euskadiko Orkestra Sinfonikoa) eta **EGO**ren (Euskal Herriko Gazte Orkestra) lana babesten dugu, eta hainbat musika-ziklo eta -jaialdien garapean hartzen dugu parte, hala nola **Araba Schubertiada**, Franz Schuberten musika-rekin; **Bernaola Zikloa**, Musika Garaikidearen Nazioarteko Jaialdia; **Vitoria-Gasteizko Jazz Jaialdia**; Osteguna Rock, Araña del Rock Kultura Elkartearekin; **Midnigh Boogie Weekend**, soul eta R&B jaialdia da eta seigarren edizioa bete du; **Kontzertuan eta irekita**, Andre Maria Katedrala Fundazioarena, eta abar.

Jesus Guridi Musika Kontserbatorioak, **Luis Aranburu Musika Eskolak** edo **Opera eta Zarzuelaren Lagunen Elkarteak (AAVOZ)** egiten duten lana ere babesten dugu, besteak beste.

Zinema eta telebista

Vital Fundazioak laguntza ematen dio **FESTVAL** Telebista Vitoria-Gasteizko Jaialdiari. Hitzordu hori ezinbestekoa da ekoiztetxe, kate, telebistako profesional eta ikusleentzat, eta erreferente bihurtu da sektorearentzat. Zinhezba eta KalakaLab kultura elkarteekin batera, **GazteFilm Fest** antolatzen dugu, zirkuitu komertzialetan erakusten ez den haur eta gazteentzako zinema jaialdia. Halaber, lankidetzat-hitzarmen bat dugu **APIKA** Arabako Ikus-entzunezko Ekoizleen Elkartearekin, eta **Afrikaldia Zinema Afrikanen Jaialdiaren** bigarren edizioan hartu dugu parte.



Antzerkia

Teatro Paraiso elkartearekin proiektu bi garatu ditugu: **Haziaraba in the Mapping**, haur gazteenentzako pentsatutako azken kultura sorkuntzak bultzatzen dituen jaialdia; eta **Vital Antzerki** programa, Vitoria-Gasteizko Beñat-Etxepare Antzerki Aretoaren kultura eta hezkuntza proiektua. Marianistas Ikastetxearekin **Antzerki Musikalaren Astean** hartu dugu parte.

Poesia

'**Poetak maiatzean**' jaialdiak poesia Araban zabaltzen laguntzen du Hunkitu Arte Elkartearen eskutik. Maiatzean zehar mintegiak, errezitaldiak, kontzertuak, poesia bisualaren erakusketak, irakurketa herrikoikiak eta abar antolatzen dira.

- 122 jarduera (81 Gasteizen, 41 herrietan)
- 8.031 ikusle



Arte Vital lehiaketa

Arte Vital Lehiaketa Vital Fundazioak, ZAS Kultur-en lankidetzaz, antolatutako lehiaketa bat da, gure lurraldeko kultura sektorea bultzatzen laguntzeko. Hemezortzi urtetik gorako arabar artistei irekita dago pintura, eskultura, argazkilaritza eta bestelako tekniketan, eta gai librea du.

- 154 obra aurkeztu dira
- 1.500na euroko 4 sari



IN SITU ArtFest

Ekimenak hirugarren edizioa bete du ekainean, eta Vitoria-Gasteizko tokiko hamar saltoki berriren erakusleihoak arte-galeria txiki bihurtu ditu, artista gazteak ikusarazteko eta erakusketa-formatua ohiko testuingurutik ateratzeko.

Ilustrazioa, komikiak eta liburuak



Vital Fundazioak **IRUDIKA** Ilustrazioaren Nazioarteko Topaketa Profesionalaren zazpigarren edizioan parte hartu du. Edizio honetan, hitzaldiak, hitzordu profesionalak, tailerrak eta egonaldi artistiko bi egin dira. Kordoi Etxean ikusgai izan zen lehiaketako egoitza artistikoetan egindako lanen erakusketa.

Halaber, Atiza Komiki Marrazkilarien Elkartearekin lankidetzan aritu da, **Crash Komiki lehiaketarako**.

Gure babesak **Liburu Zaharren XXVIII. Azoka** egin dadila ere ahalbidetu du, ALVE Liburu Zaharren Enpresaburuen Euskadiko Elkarteak antolatuta.

Magia

Magialdia jaialdiaren Haurrentzako Galaren eszenatokia izan da Vital Fundazioa Kulturunea, familia osoarentzako ikuskizunaren eskutik: Braulio Handia. Gainera, Ilusionisten Arabako Elkartearekin sinatutako hitzarmenari esker, **Magialdiarabaren** zortzigarren edizioa burutu da, eta poza ekarri du gure lurraldeko 15 herritara.



Vital Araban zehar

Udako hilabeteetan kultura eta entretenimendua Lurraldeko eta Trebiñuko udal guztietara hurbiltzen ditugu, kultura programazio zabala eskainiz.

Vital Fundazioak urtero abian jartzen duen programa propioa da. XIX. edizioa 69 herritara iritsi da (67 Araban eta 2 Trebiñuko Konderrian).

Urrutiko Lorategia

- 69 udalerrri
- 106 emanaldi
- 10.000 pertsona baino gehiago



2023ko ekainaren 9, 10 eta 11n **Europa Biltzar Jauregian 'Urrutiko Lorategi Experience' Egilearen I. Argazki Sinposioa** ospatzeak harrera arrakastatsua izan du. Inoiz ez da egin Gasteizen hainbeste jarduera berritzaile ekarri dituen autore-argazkigintzari buruzko kongresu espezifikorik.

Espainia osotik etorritako bederatzi argazkilari ospetsuk inspiratu dituzte bertako eta beste probintzia batzuetatik iritsitako 150 argazkilari eta argazkigintza zale baino gehiago, 90 minutuko hitzaldiren bitartez, bertaratuekin batera aritu dira **networking** saioetan, eta horien lanak modu partikularrean berrikusi dituzte, euren proiektu pertsonalak bideratzen laguntzeko.



Aintzina Folk



Jaialdi solidarioa izan zen sorreran, kausa sozial bat, ataxia telangiektasiaren ikerketa, defendatu nahi duena. Gaixotasun arraroa da, sendabiderik eta tratamendurik ez duena eta Euskal Herriko hiru gazteri eta Estatuko 40 gazteri baino gehiagori eragiten die. Jaialdiak 11 urte bete ditu. Urtero 20 jarduera baino gehiago programatzen ditu hilabete pasatxoan, nazioarteko, tokiko eta beste lurralde batzuetako taldeen kontzertuak, musikarien prestakuntza sustatuz eta Araban askotariko kultur eskaintza bultzatuz. Hori guztia 100 boluntario baino gehiagoko talde handi batek kudeatzen du. Dagoeneko 180 talde eta artista baino gehiago igaro dira 11 urte hauetan jaialdiko agertokietatik, eta 45.000 ikusle baino gehiago, komunitate desberdinetakoak, izan dira azken urteotan.

Kultura arloko beste zenbait lankidetzak

Urtean zehar hitzarmenak sinatu dira **zazpi kuadrilletako kultura elkarte askorekin, Arabako udal gehienekin eta eskualdeetako zentroekin**. Aisialdiaren eta kultura alternatiboaren aldeko apustua den **Freak Festival** jaialdian parte hartu dugu, eta Komedia Vitoria-Gasteizko Umore Jaialdian ere bai.

Gure hirian tradizio handia duten hainbat erakunderen dibulgazio-lana babesten dugu, hala nola **Europako Sustraiak Elkarteak, Urrezko Zeledonak** eta **Lau Dorreak**. **Euskadiko Etika Klusterra Fundazioari, Artium Museoari** eta beste zenbaiti ere ematen diegu laguntza.

Innovación cultural

Arabako kultura-jarduerak berriak garatzeko ingurune egokiak aurkitzen laguntzen du Vital Fundazioak, pentsamolde desberdinak babestuz eta egitura berriak garatzen lagunduz, kultura-abangoardiak sortu, ekoitzi, hedatu, merkaturatu eta zaintzeko.

Garaiongo sormen gunea

Eusko Jaurkitzaileen Sorgune izendapena du Ozaetako jarduerak. Urtean 309 egunetan ehun artista baino gehiagori beren proiektuak garatzen laguntzeko sormen-gunea. Diziplina anitzeko 41 proiektu berri lantzen dituzte: zirkua, antzerkia, dantza, bertsolariak, narratzaileak, zinemagileak, musikariak eta diziplina nahasiak, lengoia berriak edo ikerketa-prozesuen sortzaileak.



AZALA

AZALA, Lasierako landa-ingurunean. Arte biziak sortzeko, ikertzeko, esperimentatzeko, etengabeko prestakuntzarako eta programatzeko espazioa, kultura-eragileen laguntzarekin. Artistek gorputzean oinarritutako arteak lantzen dituzte, egiteko eta esateko moduak esperimentatuz, diziplina eta lengoia artistiko berriak ezagutuz.



Baratza. Auzoa eta etorkizuna

Arte eszeniko garaikide gorakorrak babesten ditu eta bere komunitatearekin eta ekosistemarekin lotzen ditu zentro honek, Vitoria-Gasteizko bihotzean dagoen Aldave plazatik. Sorkuntza, ikerketa, prestakuntza, bitartekaritza eta erakusketarako erabiltzen diren ia 300 metro koadro. Musikarekin (Jalgi), zinemarekin (Kalakalab), dantzarekin (Larrua proiektua), bertsozaleekin, topaketa soziokulturalekin, arte biziarekin eta abarrekin lotutako sektoreak edo ideiak biltzen ditu.

Kultur eta sormen Faktoria Aiaraldean

Aiaraldea osoari kultura eta sormen garaikidearen formatu integral eta berritzailean ekintzak eskaintzen dizkion proiektua da, ikusleen zentzumenak dantzan jartzen dituena. Horretarako, egonaldi artistikoak, sorkuntza-bekak, atelierak, bitartekotza artistikoak ikastetxeekin, hurbileko produktuen dastatzeak, performanceak eta sortzaileen solasaldiak biltzen dituzten hainbat jardura eskaintzen ditu. Jardueren bidez, sortzaile eta mota askotako publikoaren arteko zubiak eraiki nahi dira, eskualde sortzaile eta kulturista bihurtzeko helburuarekin. Funtsean, proiektu honekin euskarazko kultur diziplinak sustatzen dira eta Aiarako Kua-drillako sortzaileak ezagutarazten dira.



Hibridalab

Berrikuntza Irekirako eta Transferentzia Sortzailerako zentroa, Arabako unibertsitate-campusen kokatua. Lurreko enpresa eta erakunde sozial, kultural, sortzaile eta akademikoaren artean sinergiak eta lankidetzak sortzea du helburu, ideiak, lankidetzak, digitalizazioa eta industria adimenduna bultzatuz Arabaren erronkei aurre egiteko. Berrikuntzarako eta hibridaziorako 1.500 metro koadro.

2023an, Plan Zuzentzailean zehaztutako programak ezarri dira, arian-arian garatzeko

1. Koktelera. Ikerketa, Berrikuntza Irekia eta Diziplinaz Gai-diko Esperimentazioa.
2. Konfluentziak. Enpresen arteko eta sektoreen arteko lankidetzak.
3. Dataction. Datuen tratamendua eta modelizazioa.
4. Sormenezko bultzada. Creative Office eta Transferentzia sortzailea.
5. 1006 paraleloa. Dibulgaziokoa, pedagogikoa eta sozializaziokoa.

Gainera, Hibridalab-en aurkezpen ugari egin dira enpresentzat eta hainbat eragilerentzat, eta beste erakunde batzuekiko lankidetzak zabaldu da, ikastetxean beren jarduerak garatzeko.



Laudioko Kulturzaleak

Proiektuaren helburua da prestakuntzarako, sorkuntzarako, kultur erakusketarako eta topaketarako gune bat sortzea, naturarekin lotuta, lehenik dagoen espazio baten esparruan, Laudioko Lamuza parkea eta haren inguruak, hain zuzen ere.

Helburua da kodiseinuaren eta kultur ehunaren parte-hartzearen bidez egitea, zentzurik zabalenean, kultura sortzaileei protagonismo berezia emanez. Bitarteko urrats gisa, espazio bat ireki dute Laudioko erdigunean, sorkuntzarako eta topaketarako zentro txiki bat izan nahi duena, non gogoeta egin, ikasi, azaldu eta pertsona eta ideia sortzaileak elkartu nahi diren.



FUNDACIÓN · FUNDAZIOA



Hezkuntza programak

Gaitasun digital berriak eta ekintzailtzakoak, lanbide-heziketa, hezkuntza emozionala eta balioak gartzera bideratuak, gizartea oinarritik eraldatzeko

Bekak

Gure lurraldeko ikasle gazteen talentua eta ahalegina bultzatzen dugu, hizkuntzetan, teknologian, gaitasun profesionaletan eta unibertsitarioetan trebatzeko beka-programa zabala eskainiz

Ikas Vital ikastaroak

Kalitatezko irakaskuntza, adina edozein dela ere, edozein pertsonari hainbat gaitan ezagutza berriak eskuratzeko aukera emanez, bere gaitasunak areagotzeko

Ikerketa

Ikerketa-programen eta -proiektuen garapena babesten dugu, Arabako Lurralde Historikoa erreferente bihurtzeko arlo horretan



Hezkuntza, Prestakuntza eta Ikerketa Arloa

Kalitateko hezkuntza- eta prestakuntza-proiektuak bultzatzen ditugu, gaitasunen eta gizarte-balioen ikaskuntza hobetuz. Beka-programen bitartez babesten dugu ikastea eta ikerketa-proiektuak abian jartzen laguntzen dugu, prozesuan parte hartuz, ikerzaile, erakunde eta instituzioekin batera.

1.617.561 €

Hezkuntza programak

Vital Fundazioaren helburuetako bat da gazteenei txikitatik prestakuntza integrala ematen laguntzea, askotan arazko hezkuntzan sartzen ez diren diziplinetan hezten lagunduz. Helburu hori hainbat erakunde eta elkarterekin lankidetzan garatzen du. Gainera, ikastetxeen berariazko programak babesten ditu, lanbide-heziketa eta ekintzailtza sustatzeko.

‘Har ezazu kontrola’ hezkuntza digitala

Vital Fundazioak sustatutako programa propioa, teknologia berrien erabilerarekin lotutako arriskuei eta ondorioei buruz orientatzeko, hala nola Internet, sare sozialak, smartphoneak, etab.



Ikasle eta irakasleentzako hitzaldi eta tailerren bidez, teknologiaren erabilera kontzienteagoa egiten irakasten da, segurtasuneko oinarriko jarraibideak betez. Prestakuntza doakoa da, eta euskaraz, gaztelaniaz edo ingelesez ematen da, ikastetxeen lehenetsuen arabera.

- 70 ikastetxe
- 1.216 prestakuntza (lehen eta bigarren hezkuntzan)
- 26.700 arabar ikasle
- 24 tailer irakasleekin
- 56 prestakuntza familiekin (672 pertsona)

‘Gazteen Artean’ Hiesa eta Sexualitatea ikasgeletan

14 eta 19 urte bitarteko Arabako gazteei sexualitateari eta GIBak eragindako infekzioari buruzko informazio zehatza eskaintzen dien programa.

Ikastetxeetan egiten da, eztabaida-solasaldien eta lan-tailerren bitartez, kutxatutako pertsonetikiko justifikaziorik gabeko beldurra ezabatzeko eta haiekiko errespetua sustatzeko.

- 38 ikastetxe
- 2.106 ikasle
- 23 urtetan guztira: 55.619 gaztek hartu dute parte

- **Asexórate whatsapp:**
- 1.005 esku-hartze on line (296 aurrez aurreko bihurtu ziren).
- % 81 nahi gabeko haurdunaldiei buruz
- % 11 STI buruz
- % 8 bikote-zailtasunei buruz



Gainera, **AXESORATE** zerbitzuak Whatsapp bidezko kontsultak egiteko aukera ematen die gazteei, hartara, erantzuna berehalakoa izango dela bermatzen da eta prebentziozko esku-hartzearen irismena hobetu.

Gatazkaren Prebentziorako Curriculum Programa



KOKUK Elkarteak Curriculum osatzeko Gizarte eta Hezkuntza Arloko Esku-hartze Programak (PISEC) gauzatzen ditu, eskolari balio erantsia emateko eta guztientzako kalitatezko hezkuntza bermatzeko.

Gizarte- eta hezkuntza-ekintza antzeman diren babes- eta arrisku-faktoreen arabera diseinatzen da: gatazkak ikasgelan bertan eta ikasgelatik kanpo, irakasleekin, familiekin edo ikaskideen artean.

Gainera, **Federico Baraibar BHI**n ‘Bizikidetzeta Gela’ proiektua garatzen da, ikasleak kanporatzearen ordezkotresna izan dadin.

- **PISEC:**
- 8 ikastetxe
- 2.062 ikasle
- Bizikidetzeta-gela:
- 1 ikastetxe
- 235 ikasle

'Hemen nago', Genero-indarkeria prebenitzeko programa

Vital Fundazioak sustatua, **Arabako Gurutze Gorriaren** bitartez, emakumeen eta gizonen arteko harreman desorekatuak eraldatzeko, genero-indarkeria prebentziotik bidezko eta berdintasunezko gizartea sustatu dadin.

- 86 talde
- 1.714 gazte
- 848 mutil eta 866 neska

Gaztelaniaz eta euskaraz eskaintzen da kanpaina Arabako ikastetxe guztietan, Arabako gazteen artean hausnarketa kritikoa sustatzeko, hezkidetzari, berdintasunari eta/edo ekitateari buruzko ezagutzak eta jarrerak hobetuz, bizikidetzaren berdintasunean sustatzeko.



Gosari osasungarriak



Gosariaren eta hamaiketakoaren garrantziaz jabetzeko eta gosari/hamaiketako orekatu bat osatzen duten elikagaien buruz informatzeko.

- 133 tailer egin dira
- 2.299 ikasle

Lacturale enpresarekin garatutako ekimena da, Arabako ikastetxeetako haur, lehen eta bigarren hezkuntzako ikasleei bideratua, nutrizionista kolegiatuek gaztelaniaz edo euskaraz ematen dituzten tailerren bidez.

Egibide Lanbide Heziketa



Vital Fundazioak hitzarmen bat du Egibide Lanbide Heziketako Zentroarekin, ekipamenduetarako, irakasleen prestakuntzarako, hezkuntza indartzeko eta/edo laneratzeko eta lanbide-kualifikaziorako beketarako eta programetarako aparteko laguntza-planari eusteko.

Gainera, aipagarria da **EGIBIDE- Vital Fundazioa harrera gelak** oinarritzko prestakuntza-tresnak ematen dizkiela ikasle immigratzaileei, ikastetxeko hezkuntza-sistemara pixkanaka eta modu egokian egokitzea bermatzeko.

Aurten, proiektu puntual bat sartu da, **Unitate didaktikoak LHko espazio berrietara egokitze**ko, ikasleek mugimenduan ikasteko teknologia berriak erabili ahal izateko material didaktikoak garatu ahal izateko, ingurune erreal batean 3D simulazioen bidez.

HETEL Lanbide heziketaren sustapena

HETELek Euskadiko Lanbide Heziketako 27 ikastetxe biltzen ditu. Euskal Lanbide Heziketa hobetzeko lan egiten dute, gure gazteen enplegarritasuna eta gure enpresen lehiakortasuna sustatzeko.

Vital Fundazioak konpromisoa du HETELekin, Araban Lanbide Heziketa Sustatzeko Egibide eta Mendizabalako ikastetxeetan egiten den sustapen-kanpaina bultzatzeko.

Avanza azoka ere babesten du, prestakuntza-modalitate hori ematen duten lurraldeko zentroak biltzen dituen gunea, eta **Avanza Orienta jardunaldiak**, orientatzaile, tutore eta zuzendarientzat bideratutakoak, LHri balioa emateko eta prestigidun profesionalekin lotu dadin.



'IKASEKITEN' ekiten ikastea

DBHko 4. mailako ikasleak balio eta gaitasun ekintzaileetan hezteko programa, gizarte parte-hartzea, ikaskuntza, pentsamendua, lana eta arazoaren ebazpena garatzen dituen metodologiaren bitartez.

Vital Fundazioak **BIC ARABA Berrikuntzako Enpresen Zentroarekin** sinatu duen lankidetzaren hitzarmenari esker egin daiteke.

BIC Arabaren eta Arabako Parke Teknologikoaren instalazioetan goiz bateko egonaldien bidez, ikasleek ekintzailearen errealitatea ezagutzen dute, sustatzaileekin egindako tailer, hitzaldi eta ideia-trukeen bidez.

- 16 ikastetxe
- 5 tailer
- 501 ikasle



Formula Student Vitoria

Formula Student Vitoria UPV/EHUko Arabako campuseko Ingeniaritza Eskolako ikasleek osatzen dute, gehienbat. Eserleku bakarreko lasterketa-ibilgailu elektriko bat egiten dihardute, mundu osoko unibertsitateetako ikasleen aurka Formula Student lasterketetan lehiatzeko.



Formula Student-eko lehiaketek ingeniari-tzako bikaintasuna sustatzen dute, eta aukera ematen diete taldeetako kideei F1 zirkuituan parte hartzeko autoa lortzeko ekipoak eta aurrekontuak diseinatu, eraiki, garatu eta kudeatzeko. Vital Fundazioa da babesle nagusietako bat.

- 1. lehiaketa
- 43 ikasle
- 2.a Design Event-en
- 9.a kostu eta fabrikazio proban
- 12.a negozio garapen proban
- 32 taldetik 5.a Concept Class-en sailkapen orokorrean

Espazioa

Hezkuntza-programa aitzindaria da, eta modu atsegin eta ulergarrian barneratzen ditu lehen hezkuntzako ikasleak klima-aldaketa, gerra, pandemia, konfinamendua, krisi ekonomikoa edo pantailen kontrol gabea erabilera bezalako gaietan. Baikortasuna berreskuratzeko zer baliotan oinarritu behar dugun hausnartzen laguntzea da helburua, etorkizunean itxaropen-mezu baten bitartez.



Baina berriena horretarako aukeratutako formatua da: antzerkia, zinema eta beste diziplina artistiko batzuk uztartzen dituen ikuskizuna. Ekimena **Eneko Etxebarrietak** burutu zuen, **Lurraldeko 18 ikastetxetan**.

Aldatzen



Vital Fundazioak, Ediren Osasun Kooperatibarekin batera, sexu-hezkuntzako programa berri bat jarri du Arabako ikastetxeen eskura, haurtzaroan sexualitate osasuntsua eraikitzeko hezkuntza-lana egiteko. Ekimena erabat doakoa da, eta Lehen Hezkuntzako 6. mailako ikasleei eta irakasleei zuzenduta dago.

Programak kontuan hartzen du sexualitatea funtsezko eta zeharkako elementua dela pertsonen garapen osasungarrian, eta, hala ere, askotan, ez dago oso argi nola heldu ikasleekin.

10 ikastetxetan garatu da, guztira 17 ikasgela, Lehen Hezkuntzako 6. mailako ikasleekin, familiekin eta irakasleekin.

Motibaziozko eta nork bere mugak gainditzeko hitzaldiak ikastetxeetan

Vital Fundazioak DBHko 4. mailako, Batxilergoko edo LHko nerabeei zuzendutako hitzaldi motibatzaileak bultzatu ditu ikastetxeetan. Egoera larri eta frustragarrietatik igaro diren benetako testigantzen bidez, ikasleek inspirazio- eta gainditze-iturri bat aurkitzen dute, beren bizi-prozesuan eredu gisa balio diena.

Hitzaldiak **Montxo López de Ipiñak** eman zituen, mendi-istripu larri baten ondoren tetraplegiko geratu zen ilustratzaile arabarrak. **'Aurrera begira'** proiektuak bere historia pertsonala eskaintzen du erresilientiaren adibide gisa. Bestalde, **Caminus** irabazi-asmorik gabeko elkarte arabarrak, desgaitasuna duten pertsonen aldeko proiektu solidarioak garatzea eta gaixotasun arraroak ikertzeko funtsen bilketa sustatzea helburu duen elkarteak ere eman ditu hitzaldiak.

Gainera, Caminus Elkarteak lorpen handia izan zuen 2023an, gurpil-aulkiko **Euskal Herriko 1. Itzulia** eta Gasteizko martxa solidarioa burutu baitzituen.



Hezkuntza arloko beste zenbait programa



AWAKE-Gasteiz (16 eta 22 urte bitarteko neska-mutilen hezkuntza emozionala sustatzea); **'Hitz Kolpe – A golpe de palabra'** (genero-indarriaren, eskola-jazarpenaren eta cyberbullyingaren aurka, Gazteriaren Foru Erakundearekin garatua); **Hei Txiki Herritarren Eskola Irekia** (familiei eta haurrei zuzendutako programa, herritarrek parte hartzeko ereduak sustatzeko, Vitoria-Gasteizko Udalarekin lankidetzan); **Konexio-ona** (eduki birtualei dagokienez, ikasleen pentsamendu kritikoa sustatzeko); **Cosmiun** (hitzaldiak eta tailerrak 360º-ko planetarioan, Arabako ikastetxeetan); **Mendizabala LHII** (Arabian ikus-entzunezko ekoizpena bultzatu eta sendotzeko); **'VG MotorSport'** (lehiaketako motozikletaren prototipoa diseinatu eta garatzeko), besteak beste.

Bekak

Kalitateko prestakuntza babesten dugu. Horretarako, hainbat ikasgaitako bekak eskaintzen ditugu, ikasle arabar konprometituek beren ikasketek eta ikerketek eragiten duten erantzukizun ekonomikoaren zama arindu dezaten.

Berrikuntza Teknologikoko Egibideko bekak

LHko tituludunentzako funtsa, Egibiden garatu beharreko hainbat arlorako proiektu teknologikoei lotuta. Beken xede diren arloak honako hauek dira: laborategi kimikoko kalitate-prozedurak, hezkuntza-arloko ingurumen-sentsibilizazioko prozedurak, ostalaritzaren kudeaketa integrala, ekipo informatikoa, ekipo industrialen mantentze-lanen kudeaketa, 4.0 industrian sistema integratzea eta mediateketan hezkuntza-laguntzako programa eta azterlan bideratua.

- 10 beka
- 3.000 eurokoa bakoitza

Eta berrikuntza gisa sartu ziren: sistemak kudeatzeko prozedurak: kalitatea, ingurumena, laneko segurtasuna eta osasuna; komunikazioa, administrazioa eta kudeaketa LHko zentro batean, eta ikus-entzunezko edukiak sortzeko espazio baten kudeaketa.



Industria digitaleko gradu dualeko ikasleentzako bekak

Industria Digitaleko gradu dualaren lehenengo ikasturtea egiten ari diren ikasleei laguntzeko programa. Zerga-egoitza Araban edo Trebiñun izan behar dute eta 3 urteko antzinatasuna eta baliabide ekonomiko mugatuak. Bekaren zenbatekoa familiaren errentaren arabera da, eta 2.000 eta 3.000 euro artekoa izango da.

- 4 beka (bakoitza 2.000 eta 3.000 euro artekoa)
- 10.000 euro



Becas Bekak
Erasmus
FUNDACIÓN Vital FUNDAZIOA

Erasmus Unibertsitate-Bekak

Europar Batasuneko Erasmus graduko ikasleentzako 23/24 ikasturterako mugikortasun programan onartutakoei zuzendua. Diru-laguntzak 1.200 eurokoak izango dira ikasturte oso baterako, eta gehienez 600 eurokoak lau eta sei hilabete bitarteko ikastaldietarako. Hilean 120 eurorainoko beka espezifikoak ere badaude, lau hilabetetik beherako egonaldietarako. Deialdi honen barruan, kontuan hartzen da egoera ekonomiko berezian dauden gazteen kasua, ohiko beken bikoitza jaso baitzakete: 2.400 euroraino.

- 53 beka
- 41.400 euro

Euskara ikasteko bekak

Vital Fundazioak, Gasteizko IKArekin lankidetzan, 15.000 euro bideratu ditu 18 eta 25 urte bitarteko Arabako gazteei eta egoera ekonomiko ahulean dauden pertsoneri euskara ikasteko bekak finantzatzeko. Gazteentzako beken zenbatekoa 320 eta 600 euro bitartekoa izan da, ikastorduen arabera. Gizarte-bazterketa jasateko arriskuan dauden pertsonentzat beka osoa izan da.

- 15.000 euro
- 14 gazte (bakoitza 320 eta 600 euro artekoak)
- 22 bekadun gizarte bazterketa arriskuan

Ikas Vital ikastaroak

Hezkuntza iraunkor eta inklusiboaren printzipioa defendatzen dugu, guztiontzat, adina edozein dela ere. Askotariko ikasgai buruzko ikastaroak eskaintzen ditugu gure egoitzan, Kordoi Etxean, denontzat.

Ikas Vital ikastaroak

ikasVital

Cursos para todos/todas
Guztiontzako ikastaroak



Vital Fundazioak ibilbide luzea egin du orain dela hogei urte luze abian jarritako prestakuntza- eta jolas-jardueretan. 2023an, adin guztietarako hezkuntza-eskaintzarekin jarraitzen dugu. Ikas Vital ikastaroek hainbat gai buruzko prestakuntza eskaintzen dute (kultura, historia, ekonomia, teknologia berriak, etab.), eta irakasle adituek ematen dituzte.

- 116 jarduera
- Aurrez aurreko 62 ikastaro
- 8 ikastaro online
- 46 irteera
- 3.326 personas

Aurrez aurreko prestakuntza-programak	Ikastaroak	Pertsonak
NAZIOARTEKO ALBISTEAK AZTERTZEKO KLUBA	2	103
KULTURA TXANGOAK	5	215
POP ABESBATZA	1	34
MUSIKA	2	46
PETANKA	1	40
ARABAKO PINTURA	2	79
IBILALDIAK HIRITIK	19	721
ESTIMULAZIO KOGNITIBOKO TAILERRAK	12	150
NUTRIZIO TAILERRA	2	47
TOPAKETA FILOSOFIKOAK	1	23
OSASUN TAILERRA	2	50
HIZKUNTZA IKASTAROAK	5	71
INFORMATIKA, TELEFONO MUGIKORRA ETA GPS	18	276
HISTORIA	4	259
FILOSOFIAREN HISTORIA	2	83
EKONOMIA ETA LEGERIA TAILERRA	4	81
ARKEOLOGIA	2	47
ARTEAREN HISTORIA	2	82
MENDI-IBILIAK	22	870
GUZTIRA	108	3.277

Prestakuntza-programak online	Ikastaroak	Pertsonak
NUTRIZIO TAILERRA	2	3
MUSIKA	2	8
HISTORIA	2	24
ARTEAREN HISTORIA	2	14
GUZTIRA	8	49



Arabako campuseko esperientziaren gelak

Etengabeko eta kalitateko hezkuntza sustatzea bizitza osoan zehar, ordaindutako lan-jarduerarik egiten ez duten 55 urtetik gorako pertsonen artean. Duela 21 urtetik hona, Arabako campuseko EHUko hainbat sailek ikasleen kezka intelektualei erantzuna emateko programa bat eskaintzen dute.



Vital Fundazioak Unibertsitatearekin duen konpromisoari eusten dio, **Giza Zientzietako Unibertsitate Titulua** sustatzeko. 55 urtetik gorakoek aukera dezakete titulu hori, lau ikasturte gainditu ondoren.

- 600 tituludun baino gehiago

Eten digitala gainditzeko tailerrak

Teknologiarako sarbidean dagoen desberdintasuna murrizteko eta eguneroko kudeaketetan telefono mugikorriari etekina atera nahi dioten 55 urtetik gorako pertsonen aukerak eman ahal izateko.

Vital Fundazioak, Vitoria-Gasteizko Udalarekin eta SECOTekin (Senior Espainiarrak Lankidetzatza Teknikorako) batera, 55 urtetik gorako pertsonentzako aplikazio mugikorrei buruzko doako tailerrak antolatu ditu.

Aplikazio erabilgarriak erabiltzen ikasi dute: WhatsApp, QR irakurketak, SOS Deiak, Bizum ordainketak egiteko, Osakidetzaren webgunean hitzordu medikoak eskatzeko, osasun karpeta kontsultatzeko, bankuko ordainagiriak ordaintzeko, banku transferentziak egiteko edo Udalaren Herritarren Postontzia erabiltzeko, besteak beste.

- 14 tailer
- 16 gizarte-etxetan
- 15 laguntzako edukiera
- 240 pertsona



Gainera, 2023an, Lurraldeko herrietan eten digitala gainditzeko 14 tailer ere egin ziren; 178 parte-hartzaile izan ziren, eta horietatik % 66 emakumeak izan ziren.

CECAk Vital Fundazioa saritu du bere gizarte ekintzako programetako birengatik

Espainiako Aurrezki Kutxen Konfederazioak (CECA) Vital Fundazioa saritu zuen 'Gizarte Ekintzako eta Finantza Hezkuntzako' CECA sariaren deialdiko sari birekin. Arabako erakundeak bigarren sari bi jaso zituen 'Gizarte Ekintza' kategorian: lehenengoa 'Deportivity' ekimenari egokitu zaio, Kirola eta Aisialdia kategoriaren barruan, eta bigarrenak 'Osasun mentala sustatzeko eta nerabeen suizidioa prebenitzeko gida' izeneko proiektua saritu du.

Jon Urresti Vital Fundazioetako presidentea jaso du saria Madrilen egin den ekitaldian.



Ikerketa

Ikerketa-programak eta -proiektuak hobeto garatzen laguntzen dugu, horiek abian jartzen lagunduz eta prozesuan ikertzaileekin, erakundeekin eta instituzioekin batera inplikatur, Arabako Lurralde Historikoa erreferente bihurtzen arlo horretan. Ekimen 2 babesten ditugu.

BIOARABA Osasun Ikerketako Institutua

Ikerketa eta berrikuntza biomedikoko eta osasun-zientzietako zentroa, osasun-sistemaren programak eta politikak zientifikoki oinarritzen dituena, Arabako Lurralde Historikoan ikerketa translazionala sustatuz – ezagutza zientifikoak praktika klinikora eramanez–.

Aurten, Vital Fundazioak 200.000 euroko ekarpena egin du hiru proiektu-arlo finantzatzeko: 1) hondakin-urak, **legez kanpoko substantzien kontsumoa ebaluatzeko informazio epidemiologikoaren iturri berria diren aldetik** 2) sakarosaren eragina jaioberriengan eta 3) ariketa fisikoak pertsonengan duen eragina, pertsona horiek duten patologien arabera.



UPV/EHUrekiko lankidetzak

Euskal Herriko Unibertsitatearekin (UPV/EHU) lankidetzan aritzen gara ikerketa sustatzeko eta talentu gazteei hainbat programa garatzen laguntzeko.

Programa bi: **INIZIA Arabacampus** eta **CBI@Basque Country University Araba Campus**, enpresa berriak sortzeko.

Lurraldearekin eta garapen jasangarriko helburuekin (GJH) lotutako ikerketa-proiektuak babesten ditugu, eta **'Zientzia Astea' Zientzia, Teknologia eta Berrikuntzaren Astea** garatzen laguntzen dugu: Europar Batasunak bultzatzen duen urteroko ekitaldia da, herritarren artean kultura zientifikoa sustatzen duena.

Hainbat kultura- eta kirol-programa ere bultzatu dira unibertsitatearen esparruan, hala nola, urteko kontzertu-programa bat edo 'Egin korrika, erresistentziarik gabe' unibertsitate-lasterketa antibiotikoen erabilerari buruz kontzientziatzeko.



Vital

FUNDACIÓN · FUNDAZIOA



Laneratze inklusiboa

Gizarteratze- eta laneratze-programak gauzatzen dituzten instituzioak eta erakundeak babesten ditugu, zaurgarritasun-egoeran dauden pertsonen enplegua lortzeko aukera izan dezaten

Ekintzailtza

Ekintzaileei beren enpresa sortzeko prozesuan laguntzea, ekiteko prestakuntza-, aholkularitza- eta beka-programak eskainiz

Merkataritzarako laguntza

Tokiko merkataritzaren gaitasunak hobetzen laguntzen dugu, lehiakorra eta errentagarria izan dadin, kontsumo-eredu berrietara egokituz





Enplegu eta Laneratze Arloa

Gizarte-erakundeen eta enpresen arteko zubi-lana egiten dugu, gizarte-erantzukizuna sustatuz eta gazteentzako nahiz egoera ahulean dauden pertsonentzako lan-aukera berriak bultzatzen dituzten ekimenak babestuz eta bultzatuz. Ekintzailletza-programak sustatzen ditugu eta merkataritza bultzatzen dugu gure lurraldean.

607.966 €

Laneratze inklusiboa

Micaela Portilla Eskola Tailerra (Añanako Kuadrilla)

Langabezian dauden gazteei zaharberitze-arloan lanbide bateko prestakuntza ematea sustatzen du. Basogintzari buruzko ezagutzak ematen dituzte, laneratzea errazten dute eta Fontechako Orgaztarren Dorre-Jauregia (Araba) eta Gesaltza Añanako Gatz Harana birgaitzen laguntzen dute.

36 pertsona

12 pertsonako 3 tailer:

- igeltserotza
- armatze-arotzeria
- basogintza



Ijitoen Idazkaritza Fundazioaren Calí Programa

Kolektibo kalteberetako pertsonen gizarteratzea eta laneratzea hobetzen ditu, batez ere emakume ijitoena, aukeraberdintasuna, genero-berdintasuna eta diskriminazio mota guztien aurkako borroka sustatuz, genero-indarkeriaren biktimei arreta berezia eskainiz.

- 32 emakume Calí programan
- 22 emakume laneratzeko ibilbideetan
- 130 erabiltzaile informatuak:
- 47 genero-indarkeriari buruz
- 9 saio genero-berdintasunari buruz

Gureak Araba

Enplegu Zentro Berezia, edozein motatako desgaitasuna (psikikoa, sentsoriala, fisikoa eta gaixotasun mentala) duten pertsonak laneratzeko lan egiten duena.

Halaber, desgaitasunari eta enpleguari buruzko informazio- eta kontzientziazio-ekintzak garatzen dituzte Arabako enpresa-sarean.

Ohiko enplegua lortzea

- 11 pertsona (5 emakume eta 6 gizon)
- Desgaitasunak:
 - Psikikoa: 2 pertsona
 - Intelektuala: 9 pertsona

SARTU Álava

Pertsonengan eta gizarte- eta lan-inguruneetan beharrezkoak diren aldaketak sustatzea, gizarte-bazterkeriako egoerak murriztu edo ezabatu daitezten.

Gaitasun pertsonalak, profesionalak eta elkarrekiko harremanak garatzea sustatzen dute, enplegua lortzeko teknikiei eta laneratzeko enpresak sustatzeari buruzko prestakuntza-ekintzen bidez.

Harrera zerbitzua:

- 1.263 pertsona (530 emakume eta 733 gizon)

'BATEKIN':

- 1.596 pertsona artatu dira, 173 sentsibilizazio-ekintza

Gazte Bermea Europako Proiektua:

- 4 gizonek eta 5 emakumek hartu dute parte laneratze-ibilbidean



HAZIA 23

Profesionaltasun-ziurtagiridun prestakuntza, tutoretzak eta bekadun praktikak prestakuntzarik eta lan-esperientzia esanguratsurik ez duten 23 urtetik beherako langabeentzat, beste prestakuntza- eta enplegu-sistema batzuetan sartuta ez dauden kasuetan.



- 25 gaztek hartu dute parte
- 5 lanean ari dira
- 3 prestatzen ari dira oraindik
- 6 enplegu-bilaketa aktiboan

Vitoria-Gasteizko Udalarekin, ADSIS Fundazioarekin, Egibide Fundazioarekin eta Gasteizko Elizbarrutiko Caritasekin lankidetzan.

Ekintzailtza

Ekinean eta Sendotzen programak

Arabako Merkataritza, Industria eta Zerbitzu Ganberarekin batera, programa bi garatu dira: **Ekinean**: Araban enpresa-proiektu bat garatzen ari diren eta oraindik jarduerari ekin ez dioten ekintzailentzat, eta **Sendotzen**: sortu berri diren eta jarraitzeko laguntza behar duten enpresak babesteko, adibidez, aholkularitza eta prestakuntza arloetan.

Ekinean:

- 10 proiektu

Sendotzen:

- 10 proiektu

Ajebask

Enpresari gazteei laguntzeko eta gure lurraldean enplegua sor dezaketen proiektu berriak sortzen laguntzeko prestakuntza eta enpresa-coaching ekintzak bultzatzeko, **Arabako Enpresari Gazteen Elkartearekin (Ajebask-Araba)** lankidetzan.



- 14 ikastetxe
- 500 ikasle
- 100 saio baino gehiago
- 21 proiektu finalista
- 3 proiektu irabazle

Araba ekinean

Arabako ekintzailtzaren ataria da. Arabako lurraldeko ekintzaille eta ekintzailtzari laguntzeko erakunde guztien arteko lotura hobetzea eta erreferentzia izatea du helburu nagusi.

Vital Fundazioak, Vitoria-Gasteizko Udalarekin, Arabako Foru Aldundiarekin, Eusko Jaurlaritzarekin (SPRIren bidez) eta BIC Arabarekin batera, hainbat ekimen bultzatu ditu, hala nola **Ekin Day**, ekintzailtzari buruzko urtean behingo jardunaldia. Bertan, 'Zure ideiak balio du' lehiaketaren sariak banatu dira, baita Araba Ekinean Sariak ere.



Empleo Araba

SEA Arabako Enpresak elkartearekin batera abian jarri da, Arabako industria-sektorean enplegu-eskaintza eta -eskaria bateratzeko eta Arabako enpresetan dauden berehalako kontratazio-beharrei erantzuteko.

Egiten diren ekimenen artean, honako hauek nabarmentzen dira: unibertsitateko edo Lanbide Heziketako titulazioa duten **gazteentzako bekak**, nazioarteko esperientzia duen Arabako talentua itzultzeko **Back to Araba - Talent Forum**, lana aktiboki bilatzeko kualifikazio handiko **coaching zerbitzua**, enpresa-mundua hezkuntza-sistemara hurbiltzeko **Gure Enpresak** programa, edo **Industry Day** jardunaldia, ikaste-teeek industria-enpresak bisitatu ditzaten.



ASLE

Euskadiko Lan Sozietateen Enpresa Elkartearekin (ASLE) eta Vital Fundazioarekin sinatutako hitzarmenari esker, Lan Sozietate formako enpresa-proiektu bat abian jarri edo dagoeneko lanean ari den lan-sozietate batean parte hartu nahi duten lurraldeko langabeei eta ekintzaileei laguntzeko.

Laguntza zuzeneko poltsak:

- 4 lan-sozietate berri

Merkataritzarako laguntza

AENKOMER

Elkarteen eta enpresen profesionalizazioa sustatzen du, haien lehiakortasuna indartzeko, proiektuak abian jarritz eta sektoreko elkarte eta enpresei zerbitzuak emanez.

Tokiko Produktuen Merkatua, gastronomiako zuzeneko salmenta-postuak, dastatzeak, sukaldariekin topaketak, ekizleak, sukaldaritza-tailerrak, etab.

Ostalaritza-sektoreari zuzendutako **profesionalizazio-ekintzak** ere abian jartzea.



Armairuen Renove Plana

Gure etxeetan metatzen den arropari bigarren bizitza bat ematea, tokiko merkataritza dinamizatuz eta ingurumenaren zaintza sustatuz, **Gasteizko Merkataritza Elkartearekin** batera.

- kilo 1 arropa = erosketa-kupoi 1
- 32 saltoki atxiki dira
- 10.000 kilo baino gehiago

Arabadendak-eko tokiko merkataritzarako laguntza

Enpresen arteko lankidetzeta eta operadore publiko eta pribatuen arteko koordinazioa sustatzea, merkataritza beste jarduera ludiko, kultural, turistiko, ostalaritza, ingurumen eta abarrekin integratzeko.

Arabako Merkatarien, Ostalarien eta Zerbitzu Enpresen Elkarteak (Arabadendak) horiek hobetzeko eta dinamizatzeo neurriak bultzatzen ditu.





Vital

FUNDACIÓN · FUNDAZIOA



Ingurumen-programak

Ingurumen-aberastasuna babesteko, energia-baliabideen kudeaketan eta aurrezpenean hezteko edo kontsumo arduratsua sustatzeko. 15. GJHarekin lerrokatutako biodibertsitateari buruzko proiektu bat bultzatzen dugu Araban

Euskararako eta euskal kulturarako laguntza

Programak eta proiektuak babesten ditugu euskararen erabilera eta euskal tradizioak sustatzen dituzten kultura eragile, erakunde eta instituzioekin lankidetzan

Lurraldearen sustapena, azokak eta merkatuak

Garrantzitsutzat jotzen ditugu Arabako ondare historikoa berreskuratzeko proiektuak, eta lehenengo sektorearekin nahiz bertako produktuekin konprometituta gaude, hortaz, sustatu egiten ditugu azokak eta merkatuak bultzatuz





Ingurumen, Ondare eta Euskal Kultura Arloa

Ingurumenarekiko konpromisoaren erreferente izan nahi dugu Arabako Lurralde Historikoan, biodibertsitatearen aldeko ekintzak gidatzen ditugu 15. GJHaren ildotik. Arabako kultura-ondarea, euskara eta gure tradizioak defendatzen ditugu. Tokiko azokak eta merkatuak egiteko laguntza ere ematen dugu.

909.839 €

Ingurumen-programak

Ingurumena zaintzeko konpromisoari leial eusten diogu, ‘Zure bizimoduarekin bat egiten dugu’ lelopean. Kontsumo arduratsua, energia garbiak edo energia aurrezteak bezalako arloetan sentsibilizazioa eta jardutea helburu duten hainbat ekintza garatzen dugu. Naturarekin harremanetan dauden jardueren aldeko apustua egiten dugu. 15. helburua garatu dugu: ‘Lehorreko ekosistemetak bizitza’, Arabako Lurralde Historikoan.

Etxe Berdeak

Euren eguneroko ohiturek ingurumenean, gizartearen eta ekonomian duten eraginaz kezkatuta dauden familiei zuzendutako hezkuntza-ekimena. Eguneroko ekintzetan aldaketak sustatzen ditu, ingurumenarekiko jarrera arduratsuagoa izateko, eta energia-baliabideak kudeatzen eta aurrezten irakasten du.

lax Lurraldean parte hartu zuten 120 familien jarraipena egin da, eta, gainera, 2023an Gasteizko familiei ere zuzendu zaie.

- Gasteizko 30 familia
- 7 tailer
- herritarrei irekitako 6 hitzaldi (% 94ko partaidetza)

Tailerretan hainbat gai jorratu dira, hala nola energia, ura, mugikortasuna edo kontsumoa, eta **hitzaldietan** hainbat gai landu dira, esaterako gidatze eraginkorra edo ehunen 2. bizitza. Gainera, 9 txango egin dira parte hartzaileentzat eta beste 3 jendearentzat zabalik, baita ‘Ekin baratzeari’ tailerra ere.



‘Plastikorik ez’ kanpaina



- 38 establezimendu atxikita
- Edalontzi berrerabilgarri 1 = erabilera bakarreko 5 plastikozko edalontzi

Plastikozko produktuen kontsumo arduratsua planteatzen duten ekintzen multzoa, produktu horien ekoizpena izugarri igo baita azken hamarkadetan. Herritarrak kontzientziaztea eta gure egunerokoan erabiltzeko aukera praktikoak eskaintzea du helburu kanpainak.

Vital Fundazioak eta Vitoria-Gasteizko Udalak **‘Jaietan edalontzi berrerabilgarriak’** kanpaina abiarazi dute, Santiago eta Andre Maria Zuriaren jaietan, erabilera bakarreko edalontziak berrerabilgarriak diren beste batzuekin ordezkatzeko eta hondakinak saihesteko.

2023an 40.000 edalontzi inguru higienizatu ziren.

Araba Herriz Herri

Web plataforma honetan Araba eta Trebiñuko 500 herri zeharkatzen dituzten 71 ibilbide aurki daitezke. 4.000 kilometro baino gehiagoko zikloturismoko ibilbideak eskaintzen ditu BTTn edo errepidean, mapa interaktiboekin, errutometroekin eta ibilbide eta herri bakoitzeko banakako fitxei esker.



Araba Herriz Herri gure lurraldeko herriak, txokoak eta jendea ezagutarazi nahi ditu, ingurunea errespetatuz.



'Herri bat, biodibertsitatearen aldeko ekintza bat'. 'Lehorreko ekosistemetako bizitza' 15. GJH garatzea

Gure ekosistemaren biodibertsitatearen aldeko kultura sortzea eta Arabako Lurralde Historikoko herrietan baliabide naturalak modu parte-hartzailean kudeatzea da **'Herri bat, biodibertsitatearen aldeko ekintza bat'** proiektuaren helburua. Proiektuak Vital Fundazioa, Arabako Foru Aldundia eta Murgiako BHI ditu buru.

- 31 jarduera
- 21 herri
- 737 pertsonak hartu dute parte

2023ko edizioan, programa Arabako Mendialdeko Kuadrillari zuzendu zitzaion, eta honako proposamen hauek nabarmendu zituzten: Aranako partzuergoa ezagutaraztea; XVIII. mendean landatutako ehun urtetik gorako gaztainondoan iraunkortasuna sustatzea; edo inguruko animalia eta landare bereizgarrien garrantziaz sentsibilizatzea.

Izki Trail probaren baitan, programa honek 'Herri Bat Martxan' jarduera antolatu zuen. Horrela, maratoni erdia baino egun bat lehenago, hilaren 28an, ostirala, Apellanizen haur gimkana bat egin zen inguruko haurrei zuzenduta, eta 29an, larunbata, bisitariak eta korrikalarien laguntzaileek Apellanizko errotara joateko aukera izan zuten, ibilbide gidatua egin baitzuten. Izena emateen bitartez bildutako diru guztia ADELA elkarteari eman zitzaion.

23 hurrek parte hartu zuten gimkanean eta 28 helduk martxan. Araba.



Euskararako eta euskal kulturarako laguntza

Euskararen, euskararen irakaskuntzaren, erabileraren eta normalizazioaren aldeko praktikak eta ekintzak sustatu eta bultzatzen ditugu, baita euskal kulturako jarduerak eta topaketak berreskuratuz, zabaldu eta aitortzekoak ere, eragile eta erakundeekin batera.

Araba Euskaraz

Arabako ikastolen eta euskararen aldeko jaia da eta 1981az geroztik egiten da, dirua biltzeko eta Arabako lurralde historikoan euskararen erabilera sustatzeko.

Ekainaren 11n egin zen Olarizuko zelaietan, eta bildutako irabaziak Lautada ikastolara bideratu dira.



araba
euskaraz
- E K I N
2023 OLARIZU

Denon Eskola

Arabako Eskola Publikoko Ikasleen Gurasoen Elkartearen Federazioaren jarduera-programa babestea du helburu.

Besteak beste, hezkuntzari buruzko informazio-bulegoa, hizkuntza-normalizazioa, balioetan oinarritutako hezkuntza eta landa-eskola.

- 10.000 familia bazkide-tuta
- 24.000 ikasle

GEU Gasteiz Euskaldun Elkartea

Gazteen artean euskara sustatzea, familia-aisialdiko hitzaldien eta ekitaldien bidez, 'Gasteizko mintzalaguna eta familia aisialdia' programaren eskutik.

Euskaraldia egiteko ere, euskararen erabilera areagotuz, gure hizkuntza-ohiturak benetan aldatzea helburu duen ekitaldia.

Kantari: mila ikaslek baino gehiagok euskararen alde entsetzen eta abesten dute.



Zabaldantza



Vital Fundazioak eta **Mulixka Dantza Taldeak** bat egin dute Zabaldantza abian jartzeko. Sareko plataforma horrek aukera ematen du euskal dantzak edozein tokitatik eta pertsona bakoitzak aukeratzen duen erritmoan ikasteko.

Oso modu bisualean grabatu eta editatutako 21 bideo tutorial, web praktikoa eta intuitibo batean jasoak. Dantza bakoitza zailtasunaren eta dantzari kopuruaren arabera sailkatuta dago.

Berritasun gisa, 2023an Zabaldantza.com eta Zabaldantza proiektuak uztartzea erabaki zen. Zabaldantza Zabalgana auzoan azken 7 urteetan antolatutako dantza plazan proiektuak dira, eta bertan herritarrek animatzen dituzten dantza in situ egiten ikastera.

Euskal dantzak

Kultura ondarea bizirik mantentzea eta bertako folklorea kontserbatzen eta zabaltzen laguntzea, **Arabako Dantzarien Biltzarrekin** batera.

Jare Dantza taldearen musika eta dantza jarduerak ere babesten ditugu.

- 11 dantza-talde federatu
- 6 emanaldi



Bertsolaritza



Arabako Bertsolaritza Elkartea Arabako bertsolaritza aldarrikatzen du eta eskoletatik euskarazko bertso-inprobisazioekiko zaletasuna indartzen saiatzen da eta hainbat lehiaketa antolatzen ditu.

Lurraldearen sustapena, azokak eta merkatuak

Arabako ondarearen aberastasunak berreskuratzeari, defendatzeari eta zabaltzeari ere arreta berezia eskaintzen dio Vital Fundazioak, elkarteekin eta erakundeekin lankidetzan. Gainera, turismo-ibilbi-deak eta tokiko produktuak sustatzen ditu, eta azokak eta merkatuak antolatzeko eta garatzeko materialak lagatzen ditu.

Gatz Haraneko espazioak berreskuratzea

Paisaiaren kultura materiala eta ingurumenekoa berreskuratzea eta kontserbatzea, Añanako gatzagen jasangarritasuna bermatzeko, gatza teknika tradizionalak erabiliz ekoizteko eta jendeari ekimen kultural eta turistikoak eskaintzeko, eskualdeko garapen sozial, ekonomiko eta turistikorako motorra izan daitezzen.

Gatz Harana Fundazioak gatza ekoizteko larrainak berreskuratzeke, erortzeko arriskuan dauden egiturak desmuntatzeko, larrainak garbitzeko eta biltegitratzeko putzuak eta hormak konpontzeko lanak zuzentzen ditu.

Guneak **milioi bat bisitari** baino gehiago izan zituen 2023an.



Ondare irekia

Arabako ondareari irekiera digitala eskaintzea eta **Hagaburu Kultura Elkartearen** eskutik zabaltzea eta ezagutu dadila erraztea, **Ondare Irekia** proiektuaren bidez.

FITXAK

- Ullibarri Aranako Andre Mari basiliza
- Kontrastako Elizmendiko Andre Mariaren basiliza
- Birgaragoiengo San Andres apostoluaren eliza
- Esperientzia birtual berrietarako "Paisaia sakratuak" izeneko atal berria sortu dute. Bertan, Corroko eta Pinedoko haitzulo artifizialei eskainitako ibilbideak sartu dira.



Monumentuaren oinean dagoen QR kode baten bidez, 360º argazkiekin eta bideoekin eguneratutako informazio historiko-artistikoa duen fitxa oso batera sartzen da.

Aurten amaitu da **Mendi Erromanikoaren Ibilbidearen** lehenengo fasea. Horretarako, honako fitxa hauek gehitu dira:

2023an 'Arabako Mendialdeko Erromanikoa' garatu da.

Bizitzarako pinturak

Ormandetxa Kultura Elkartek Forondako Antezana eliza barruko horma-irudiak sustatzen ditu, Xabier Egaña margo-lariak eginak, 'Bizitzarako pinturak' izenarekin bataiatuak.

2023an, Xabier Egañak Antezana-Andetxako elizan hasi zuen proiektu muralistikoaren 10. urteurrena ospatu du Ormandetxak. Horregatik, bost kontzertu antolatu ditu eliza horretan, eta **800 lagun** baino gehiago bertaratu dira.



Arabako Errioxako ardoa sustatzea

Arabako Errioxako Ardoaren Ibilbidea Elkarteak prestakuntza-jardueren programa bat garatu du Villa Lucia Gune Gastronomikoko (Guardia) **XII. Enoturismo Foroaren** barruan, ardoaren eta turismoaren munduko prestakuntza bateratzeko.

Gasteiz onekin batera **Ardoaraba** antolatu dugu, ardoaren kultura, gastronomia eta gourmet produktuak protagonista dituen agertokia.

Gainera, Vital Fundazioak aurten ere **Mahats-bilketaren Jai tradizionala** babestu du, eta irailaren 17an ospatu zen, Navaridasen.



'Miniature Pintxos Congress'

Pintxoaren munduan iraultza eragin duen ekitaldiak 2023an ere izan du urteroko hitzordua, Gasteizen, bere jatorrizko hirian. Espezialistarik onenak sektoreko profesionalentzako erreferentziarako topaketa batean elkartu ziren.

Bere hamargarren urteurrenean, Kongresuaz gain, sektore profesionalari zein publikoari oro har zuzendutako jarduera programa oso bat egin zen, herritarrei irekitako dastaketak, esperientzia afariak, pintxo ibilbideak, erakustaldi teknikoak eta helduei zein haurrei zuzendutako zuzeneko tailerrak eginez pintxoak hurbildu eta gozatzeko. 500 pintxo zaletik gora hartu dute parte.

Gasteizko Gabonetako Azoka

Vital Fundazioak betiko Gabonetako Azoka egin du, eta Arabako lehenengo sektorearen eta hurbileko produktuen aldeko apustua egin du: artisautza, haragiak eta hestebeteak, kontserbak, lekaleak, barazkiak eta frutak, likoreak, ardoak eta sagardoa, ezta, ogia, gozogintza eta gozokiak, gaztak eta pateak, baita artisautzako edo lorezaintzako produktuak ere.



Beste urte batez jarraian, **'Erronka Garbia - Ingurumen aldetik Jasangarria den Ekitaldia'** ziurtagiria izan du, horrelako ekitaldi batek ingurumenean duen eragin negatiboa minimizatu du-eta.

Edizio honetako berrikuntzetako bat Egibideko Ostalaritza Eskolarekin batera antolatutako **dastatze solidarioa** izan zen. Bertan, euro baten truke, pintxo biren artean aukeratu zitezkeen. Vital Fundazioak **Elikagaien Arabako Bankura** bideratu zuen bildutako dirua.

darioa izan zen. Bertan, euro baten truke, pintxo biren artean aukeratu zitezkeen. Vital Fundazioak **Elikagaien Arabako Bankura** bideratu zuen bildutako dirua.



- 99 postu
- 81 ekoizle
- 12.000 bisitari
- Uztartze-dastatzeak: 120 pertsona
- 4 gastronomia-postu
- Musika eta bertsoak
- 14 produktu-sorta zozketatu ziren

Lurraldeko azokak

Nekazaritza eta abeltzaintza azokak Arabaren garapenerako berebiziko garrantzia duten ekitaldiak dira. Nekazaritzako elikagaien sektorea sustatzen dute, tokiko ekonomia dinamizatzen dute, ezagutza zabaltzen dute eta, batez ere, komunitatea batzen dute tradizioan eta zaporean aberatsa den kulturaren inguruan.

Horregatik, Vital Fundazioak lurralde osoan 45 azoka baino gehiagori ematen dien laguntza da bere jarduera-ardatzetako bat. Urtarriletik abendura egiten dira azoka horiek, batzuk XIV. mendetik aurrera (Agurain). Batzuk tokiko produktu espezifikoen espezializatuta daude, hala nola boilurra, AOVE, ardoa, perretxikoak, txakolina, sagardoa, babarrun nabarra, gaztaina, patata, gazta edo azienda mota desberdinetan (behi-azienda, ahuntz-azienda, zaldi-azienda); eta beste batzuk orokoragoak dira, beti ere, lehenengo sektoreari lotuak.





- 27 helmuga
- 49 ibilbide
- 72 autobus
- 3.352 gazte
(2.937 herrietako jaietara,
415 Gasteizko jaietara)



Jaibus Vital, dibertsio gorena arrisku barik

Jaibus Vital garraio zerbitzuak Arabako gazteei berriro eskaini die, uda honetan, Lurraldeko jaietara modu seguruan joateko aukera.

Ekainaren 17tik irailaren 30era bitartean, Vital Fundazioak autobus flota handia jarri du errepidean, eta, horri esker, 15 urte-tik gorako 3.352 gazte joan dira uda honetan Lurraldeko jaietara.

Hitzarmenak ditugu **Slow Food Arabarekin; Boilur Arabako Elkarte Gastronomikoen Federazioarekin; ALOYA ALAIA elkarte soziokulturalarekin, Zanbranako historia ikasten: interpretazio-mahaia** programa garatzeko; **Ipar Arriagako Auzo Elkar-tearekin, Napoleonen Merkatua** abian jartzeko; **Santa Katalinako Lorategi Botanikoaren Lagunen Elkartearekin; Arabako Natura Institutuarekin; Arabako Arkeologia Institutuarekin; SOS Vitoria Animalien Babeserako Elkartearekin**, besteak beste.



FUNDACIÓN · FUNDAZIOA



Kirol masterklaseak

Nesken eta mutilen arteko aukera-berdintasuna defendatzen dugu kirola egiten hasteko nahiz jarduera horri eusteko

Oinarrizko kirola

Arabako ikasleen arteko kirol-prestakuntza babesten dugu, modalitate desberdinetako ezagutzak eskuratzeko, autodiziplinan eta gizarte-balioetan laguntzeko

Kirol inklusiboa

Desgaitasuna duten edo ez duten pertsonen artean kirola eta kirol-lehiaketa bultzatzen duten programak babesten ditugu, garapen pertsonala, hobetzeko grina, integrazioa, lankidetzeta eta abar lortzeko

Kirol herrikoia

Arabako probak eta lehiaketak antolatzen laguntzen dugu, haien parte-hartzea sustatuz eta hainbat agertokitan garatuz, gure lurraldeari balioa emanez

Bizi ezazu Tourra

Frantziako Tourra 2023ko uztailaren 2an iritsi zen Gasteizera. Urteko txirringularitza proba entzutetsuena eta esperotakoena gure hiritik igaro zela ospatzeko, Vital Fundazioak ekimen bi antolatu zituen, elkartasun ekintza originala izan zitezen, baita hitzaldi ziklo bat ere, Frantziako lasterketaren historiari lotutako protagonisten eskutik.





Kirol Arloa

Kirolak pertsonen osasun fisikoan eta mentalean dituen onurak defendatzen ditugu. Herritarren eremu eta estamentu guztietan kirol-jarduera sustatzen duten klub, elkarte eta erakundeekin lankidetzan aritzen gara, eta arreta berezia jartzen diegu ikasleei, emakumeei eta kirol inklusiboari, herri-probak ahaztu gabe.

893.824 €

Kirol masterklaseak

Ikasleen oinarrizko kirola sustatzen lagundu nahi dugu, kirolarien testigantzaren bidez, kirolari gutxiago duten beste kirol-diziplina batzuk ezagutaraziz eta horien praktika sustatuz eta kirolaren erreferente femeninoak ikusaraziz.



2023an, hainbat klase magistral jarri ziren martxan, Lurraldeko ikastetxeetan kirol ugari egiteko. Arabako hainbat kirolarik beren kirol-ibilbidea eta esperientziak partekatu dituzte ikasleekin bederatzi kirol-diziplinatan.

2023ko udako campusak kirol anitzekoak izan ziren 9 eta 15 urte bitarteko haurrentzat, ekainaren 26tik 30era edo uztailaren 3tik 7ra. **Kanpezun** errugbia, karatea, atletismoa eta eskubaloia egin ahal izan ziren; **Agurainen**, futbola, herri kirolak, taekwondo eta badminton; eta **Bas-tidan**, padela, boleibola, saskibaloia eta eskrima. Guztiak izan ziren elebidunak.

79 MASTERKLASE

- eskubaloia, badminton, triatloia, errugbia, bolei-bola, hockeya, karatea, bela eta padela
- 18 ikastetxe
- 2.170 ikaslek hartu dute parte

UDAKO CAMPUSA

- 300 partaide



Oinarrizko kirola

Lankidetzaren hitzarmenak ditugu dozenaka klub, federazio eta kirol-elkarterekin, diziplina guztietan egiten duten sustapen eta prestaketa lana babesteko, baita jarduera fisikoa eta ohitura osasungarriak sustatzeko eta torneoak, txapelketak, campusak eta abar antolatzeko egiten duten lana babesteko ere. Talde-lana, berdintasuna, lankidetzaren, lidergoa, diziplina, konpromisoa, hobetzeko grina, lorpena, arrakasta eta antzeko balioak sustatu nahi ditugu, gurasoak, entrenatzaileak, publikoak, organizazioak eta erakundeak inplikaturik.

Gazteen artean jarduera fisikoa sustatzeko sinatutako hitzarmenen artean, besteak beste, honako hauek daude:

Arabako Saskibaloia Federazioa: teknifikazio eskolarako eta probintziako selekzioekin beheko mailetan eta **Araberri eta Goratu saskibaloia klubekin** lankidetzan aritzeko.

Saskibaloia: Araski Emakumezkoen Saskibaloia Kluba: 'Nesken denbora' programa, probintziako emakumezkoen saskibaloia-egonkortasun handiagoa ematen saiatzeko edo Lakuako saskibaloia-kluba, 3x3ko txapelketak antolatzen dituen, parte-hartze handiarekin.

Futbola: **Arabako Futbol Federazioa:** prestakuntza eta araudietarako laguntzak, Arbitroen Elkargoa eta Emakumezkoen Liga eta **futbol klubetarako** (Arambizkarra, Arlote Zambrana, San Ignacio, Agurain, Zaramaga, eta abar).

Txirrindularitza: Arabako Txirrindularitza Federazioa eta txirrindularitza klubetarako (Artziniega, Arabarrak, Audioarra eta Zuiarra).

Gimnasia: Arabako Gimnasia Federazioa, Ceted gimnasia kluba edo Arabatxo Kluba.

Atletismoa: **Arabako Atletismo Federazioa eta atletismo klubak** (la Blanca, el Prado, Audio).

Euskal pilota: Arabako Pilota Federazioa, oinarrizko kirola garatzeko, emakume pilotariaren prestakuntzarako, kirol federaturako eta Pilotagunea mantentzeko, eta Zaramaga eta Zidorra pilota klubak sustatzeko.

Herri Kirolak: **Herri Kirolak Federazioa** babesten dugu, eskola-ingurunean, Gasteizko jaietan eta Arabako txapelketetan herri-kirolak sustatzeko (Aizkora, Trontza edo Harri Jasotzea).

Honako hauekin ere baditugu hitzarmenak: **Judizmendi Igeriketa Kluba, Eharialdea, Emakumezkoen Saskibalo Kluba, Arabako Judo Federazioa, Lautada Waterpolo Kluba, San Prudencio** ikastetxea, **Gasteiz Mahai Tenis Kluba, Peña Vitoriana, Gasteiz Mendi Kluba, Manuel Iradier Txangolari Elkartea** edo curling-eko **Harrikada Kluba**, eta abar. Era berean, **Kiroletako Udal Zerbitzuari** kirol-jarduerak abian jartzen laguntzen diogu.



'Deportivity' programa

Oinarrizko futbolaren kirol-ingurunean balioak sustatzeko – laguntasuna, zintzotasuna, sakrifizioa – eta indarkeriazko portaerak prebenitzeko, aurrez aurreko tailerren eta online tresnen bidez.

Vital Fundazioak Arabako Foru Aldundiarekin, Kirolaren Euskal Eskolarekin eta Arabako Futbol Federazioarekin batera jarri du abian programa hau.



DEPORTIVITY-REN IRISMENA

- 64 talde partaide
- 871 jokalaria
- 64 entrenatzaile
- Guztira parte hartzaile zuzenak eta zeharkakoak: 1.800 (% 95eko parte-hartzea)



DEPORTIVITY

Fomento de la deportividad en el fútbol base Alavés
Futbolaren sustapena Arabako Oinarrizko Futbolean

Kirol inklusiboa

Berdintasun-balioak sustatzea kirol inklusiboan, desgaitasuna duten eta ez duten pertsonak batera aritu daitezen laguntzeko. Kirola eta bizitza pixkanaka espazio bakar eta inklusibo bihurtzeko, babesa ematen diegu klubei eta elkartei.

Zuzenak Fundazioa

Laguntza ematen diogu **Zuzenak- Vital Fundazioa** gurpil-aulkiko saskibaloiko taldeari. Estatuko maila gorenean, Ohorezko Mailan, lehiatzen da. Beste diziplina batzuk garatzen laguntzen dugu, hala nola aulkiko errugbia, txirri-urari.



tza, parabadmintona, motokrosa, tiro olinpikoa, parazaldizkoa eta atletismoa, sentsibilizazio kanpainak, Kirol Egokituko Eskola eta Campus Inklusiboa.

PARTAIDEAK:

- Gurpil-aulkiko saskibaloia: 42 pertsona
- Gurpil-aulkiko errugbia: 11 pertsona
- Txirrindularitza: 1
- Motokrosa: 1
- Tiro Olinpikoa: 1
- Parazaldizkoa: 1
- Parabadmintona: 1
- Eski alpetarra: 1
- Curlinga: 2

Gaztedi Rugby Taldea

Kirola egitea sustatzen du, Down sindromea duten pertsonen gaitasunak hobetzeko eta gizarte inklusiorako bidea den aldetik. Laguntza ematen diegu bere **Errugbi Eskolari** eta **Errugbi Talde Inklusiboari**.

Gainera, Vital Fundazioak Zaballako espetxean integrazio talde bat sustatzen du eta amentzako beste talde bat ere bai.

- 500 jokalaria
- 8 talde federatu



ASPACE Araba kirol kluba

ASPACE-ARABA garun-paralisiaren eta antzeko alterazioen **elkarteko** kirol-kluba babesten dugu, hainbat jarduera garatzeko, esaterako **BOCCIA** (petankaren antzekoa), **SLALOM** (oztopo-zirkuitu bat gurpil-aulkian ahalik eta denbora laburrean zeharkatzea) eta **IGERIKETA** egokitua. Hiru modalitateetako Euskal Ligan lehiatzen dira.

Mendi Solidarioak Elkarteak

- 13 igoera mendira
- 273 bazkide eta 15 gidari
- 14 mendi-gidari
- 2 kontzientziazio-hitzaldi ikastetxeetan

Mendiko kirol solidarioa sustatzen du, baita dibertsitate funtzionala duten pertsonen inklusioa ere, '**Ametsak bete**' programaren bidez. Mugikortasun urriko pertsonak mendiko edozein lurretatik mugitzeko aproposa den Joëlette aulkia maneiatzen eta gidatzen adituak diren boluntarioekin egiten dute lan.



Arabako Boxeo Federazioa

Bere **Boxeo Eskolak** eskolako boxeo sustatzen du eta Gizarte Zerbitzuekin lankidetzan aritzen da kirolaren bidez ingurune marjinaletako eta egokitze zailtasunak dituzten gazteak integratzeko. Genero-berdintasunari buruzko sentsibilizazio-ekintzak eta emakumeentzako autodefentsa-ikastaroak ere garatzen ditu.



Beste zenbait lankidetzza

Gainera, laguntza eman dugu **Parabadmintoneko IV. Txapelketa Nazionala** egin dadin; desgaitasuna duten **Aukera Aniztasuna Kirol Klubeko** pertsonentzako kirol jardueren alde egiten dugu, hala nola futbol 7 eta pilota; eta **Ekhitea Kirol Klubaren** saskibaloiz sozialaren alde egiten dugu, TEA nahastea duten pertsonen saskibaloian ingurune seguruan jokatzeko aukera izan dezaten.



Kirol herrikoia

Vital Fundazioak kirol-probak gure lurraldera hurbiltzen dituzten erakundeekin lankidetzan dihardu, arabarren zaletasuna eta parte-hartzea sustatuz, bai protagonista, bai ikusle.

Hiru Haundiak

‘Hiru Haundiak’ enblematikoak bere une historikoa bizi izan zuen 2023ko urriaren 14an. Irteera 00:00etan izan zuen, Murgian. **Manuel Iradier Txangolari Elkartek** eta **Vital Fundazioak** antolatzen dute izen handiko ahalegin kolektiboa eskatzen duen proba hori. **1.000 parte-hartzaile (% 33 arabarrak)** izan zituen eta Euskadiko hiru gailurrik altuenetatik (Gorbeia, Anboto eta Aizkorri) igarotzen dira.



Bastida Vital Trail

Lasterketa paregabe honen hirugarren edizioa izan da. Kiro-laren balioak, naturarekiko errespetua eta elkertasuna bulztatu ditu oso-osorik Bastidatik igaro diren 23 kilometrotan zehar. 13 km-ko **Bastida Trail txiki** bat ere antolatu da.



Izki Trail

Hiru gailur igotzen dituen probaren bigarren edizioa, 21 kilometroko distantzia eta 700 metroko desnibela. Izkiko Parke Naturalean egin da proba osoa, **Karrantan-Oskarbi Kultura Elkartearekin** batera antolatuta. **200 pertsona** inguruk hartu zuten parte proban.



Vitoria-Gasteizko Maratoi Erdia

Arabako Atletismo Federazioak eta Vital Fundazioak antolatutako proba honen 45. edizioa Vitoria-Gasteizko kaleetan zehar izan da. Distantziaren dekanoa da Euskal Herrian eta 21 km-ko ibilbidea du, jarduera fisikoa eta ohitura osasungarriak sustatzeko.



Arabako Herri Lasterketa Zirkuituaren XVI. edizioa

Atletismo herrikoiak Araban jarraipen handiena izaten duen kirol ekitaldietako baten beste edizio bat izan du, Herri Lasterketen Zirkuitua. Zazpi proba ditu, lurraldeko hainbat herritatik, **La Blanca Klubak** eta Vital Fundazioak antolatuta.

VI half gasteiz

‘VI half gasteiz’ probaren bigarren edizioa ekainaren 3an izan zen, Uribarri Ganboako urtegia, Arabako Lautada eta Gasteiz hiria eszenatoki zirela, eta distantzia ertain eta luzeko triatloia ranking nazional eta europarean proba puntuagarria izan da lehendabiziko aldiz.

‘VI half gasteiz’ proban parte hartu zuten triatletek 1.900 metroko igeriketa-proba egin zuten Ulibarri-Ganboako urtegian; 90 kilometroko txirrindularitza-proba Arabako Lautadatik hiribururaino; eta azkenean, maratoni erdia egin zuten Erdi Aroko Almendraren zati bat eta Gasteizko puntu emblematicoak zeharkatuz.

Guztira 597 triatletek hartu zuten parte proban, horietatik 196 arabarrak eta 39 emakumezkoak.



Vitoria-Gasteiz Trail

Gasteiz Trail indartsu itzuli zen 2023ko urrian. 650 trail runner-ek hartu zuten parte probaren 13. edizioan. 16 eta 26 kilometroko distantziak eta 600 eta 1.260 metroko desnibel positiboa izan zituen, hurrenez hurren. Ibilbide natural paregabea, hirigunetik kilometro batera baino ez. Proba hori mendiko lehiaketen egutegira itzuli zen, 2019tik izandako geldialdiaren ondoren.

ZuiaDu

‘ZuiaDu’ izenaz ezaguna den **Zuiako Duetloia**ren III. edizioa apirilko lehenengo larunbatean izan zen Arabako Murgia herrian. Antolakuntzak gizonen eta emakumezkoen kategorietako 600 parte-hartzaile zabaldu zuen irteera. % 60 gure autonomia-erkidegotik zetozen eta % 40 Estatuko gainerako tokietatik, horien artean modalitateko maila handieneko atletak zeuden.



Honako proba hauetan ere hartu dugu parte

La Blanca, Estatuan egiten diren proba zikloturistetatik zaharrena da, eta bere izena osatzeko igarotzen den probentzietan inisialak hartzen ditu (Burgos, Logroño, Araba eta Nafarroa); **San Silvestre lasterketa**, urteko azken egunean, ordutegi eta ibilbide berria estreinatuz; **Trilegutio**, Dida Kirol Taldeak eta Vital Fundazioak antolatu dute, eta distantzia olinpikoko Arabako Triatloi Txapelketarako balio izan du; **Laudioko Krosa** eta **Laudioko Ziklo Krosa**, besteak beste.

Bizi ezazu Tourra

Frantziako Tourra 2023ko uztailaren 2an iritsi zen Gasteizera. Urteko txirrindularitza proba entzutetsuena eta esperotakoena gure hiririk igaro zela ospatzeko, Vital Fundazioak ekimen bi antolatu zituen, elkartasun ekintza originala izan zitezen, baita hitzaldi ziklo bat ere, Frantziako lasterketaren historiari lotutako protagonisten eskutik.

Andre Maria Zuriaren plazan, CaMinus elkartearen aldeko ekimen solidarioa egin zen, eta Vital Fundazioak BH bizikleten Arabako enpresa historikoaren laguntza izan zuen jardura horretarako. Gasteiz eta Donostia lotzen dituen mendi ertaineko 209 kilometroko etaparen zati bat modu birtual eta murgiltzailean simulatzea izan zen proposamena, pantaila erraldoi bati eta smart bikeen teknologiarik esker.




Arabako gizartearentzako laguntza-deialdia

- 644.935 euro
- 98 proiektu
- 6 jarduera-arlo


Vital Fundazioak laguntza-deialdi bat egin du 2023an, Arabako gizarteak eskatzen dituen erronka berriei erantzuteko eta ahalik eta sektore gehienetara iristeko, baldintza berdinetan parte hartzea eta Arabako gizarte-sareko erakunde guztien lehia askea sustatuz.

Aurkeztutako 172 ekimenetatik 98 onartu ditu Fundazioaren Patronatuak, guztizkoaren % 57 baino zertxobait gehiago. Hautaketan erabakigarria izan da izaera berritzailea, irtenbide berriak eta eraldaketa soziala sor ditzatela; beste erakunde batzuen laguntza izan dezatela; aurreikusitako inpaktu soziala eta onuradun kopurua; proiektuak Arabako gizartean duen ikusgarritasuna; euskararen erabilera, genero-berdintasuna, gizarteratzea eta boluntarioritza bultzatzea, besteak beste.

Laguntzen banaketa 2023an, guztira, arloka



Ehunekoak



Gizartera bideratutako jarduerak eta programak

Mendekotasunaren eta desgaitasunaren esparruetan ahulena edo behartsuenak diren pertsonen, haiek zaintzen dituztenei eta familiei laguntza eta aukerak ematen dizkieten proiektuak eta jarduerak, gizarte-inklusioa eta pertsona guztien berdintasuna lortzeko.

- 23 programa
- 162.900 €

Asafes Elkarte: 'Espacio joven Erroak Gaztegunea' proiekturako; **Goian Elkarte:** 'Ongi etorri alde zaharrera' proiektua, gizarteratze komunitarioa, zaugarritasun bereziko egoeretan; **Arekitemo-Arabako Ekitazio Terapeutikoa eta Moldatua:** 'Incluyendo a caballo 2023', desgaitasun bat duten pertsonak zaldi-terapiaren bidez gizarteratzearen aldeko proiektua; **Adsis Fundazioa,** gaztelaniako hizkuntza-gaitasunak eskuratzea, emakumeenganako ekintza positiboen bitartez; **Asasam Elkarte,** buruko gaixotasuna duten pertsonentzako musikoterapia; **Atece,** opor inklusiboen programa; **Aspace,** arreta eta errehabilitazio terapeutikoa; **Down Araba,** lan-bizitzarako entrenamendua; **Urteder,** 'Aztarnak uzten' gabeko proiektua.

Kultura-ekimenak bultzatzea

Kultura oro har sustatzera, aisialdira, parte-hartzera eta balio komunitarioetara, sortzaile berriei laguntzera, berrikuntzara, artera eta abarrera bideratutako proiektu eta jarduerak soziokulturalak.

- 30 proiektu
- 198.300 €

Komedialdia Elkarte: Komedialdia umorearen Gasteizko jaialdiaren 3. edizioa egiteko; **Manuel Iradier Afrikaren aldeko Elkarte:** 'Afrikaldia - Afrikako Zinemaren Euskal Jaialdia' hirugarren edizioa; **Aguraingo Udala:** XL Artea "Zoomuseoa", formatu handiko esku-hartze artistikoak egiteko proiektua, tokiko talentua erreferentziatuz; **Samsara Kultura Elkarte** 'desaislando con arte III'; **Arrozbola Sormen Elkarte** 'Scratxe gaua'.

Hezkuntza- eta ikerketa-programen aldeko apustua

Haur, gazte eta helduen prestakuntza integrala osatuko duten gaitasunak, jarrerak eta balioak garatzeko hezkuntza-jarduerak eta -programak. Ikerketa zientifiko eta teknikoko, garapeneko eta berrikuntzako programak.

- 22 proposamen
- 164.435 €

Gazteriaren Foru Erakundea: aisialdi hezitzaileko hainbat eskola-programa garatzeko; **ID-Arte, Euskadiko Arte eta Goi Mailako Diseinu Eskola:** 'IDAste 2023, IDArte Meeting Point, Muralen Ilustrazioa, Diseinu-proiektuen mentoringa', diseinuaren eta berrikuntzaren erreferentziako proiektuak; **Mendizabala LHII:** robot industrialen programazioa adimen artifizialaren bidez; **Urkide Fundazioa:** 'Aurrera begira' erresilientziari buruzko hitzaldietarako; **Murgia BHI,** Murgia LHIIko bizikidetzaproiektu berria; **Francisco de Vitoria BHI,** 'mundu bat deskubritzeko' errezetak; **Ostalaritza BHI** 'i-vending'; **UPV/EHU** 'first Lego League Euskadi'

Enplegurako eta laneratzeko laguntza

Lan-merkatuan sartzeko ekintzak, lanbide-trebakuntzaren, lan-praktiken, prestakuntza-beken, autoenpleguko eta ekintzaitzako proiektuen bidez.

- 8 programa
- 54.000 €

Gaixotasun mentala duten pertsonen enplegurako zentro berezia - RAEP: digitalizazio programa bat burutzeko; **Prestaturik Elkarte:** 'Laneratzeko zubiak', lan-merkatuan gizarte-zaugarritasun egoeran dauden emakumeen presentzia eta parte-hartzea sustatzeko; **Izki- Landa Garapeneko Elkarte:** 'Lehiamendi: pertsona ekintzaileen sarea', Arabako Mendialdeko eskualdean egiteko; **Emakumeak eta enpresaburuak gara,** garapen profesionala eta amatasuna.

Ingurumena, Arabako ondarea eta euskal kultura

Kultura- eta ingurumen-ondare historikoa sustatzeko eta mantentzeko jarduerak eta programak. Natura gunek berreskuratzeko, merkataritza berdea, euskara eta euskal kulturaren aldeko ekintzak.

- 6 proiektu
- 30.000 €

Artziniegako Udala: Artziniegako Hiribilduaren 750 urteurrena deituriko proiektua 'Aztarnak, memoriak eta Errealitatea/Gogoratu eta ulertu aurrera egiteko'; **AFAko Euskara eta Gobernu Irekiaren Zuzendaritza:** 'Lanabes Egitasmoa', Araban eremu sozioekonomikoan euskararen presentzia handitzeko proiektua; **Hazien Sarea** 'Gazteak biodibertsitatearen zaindari'; **Bilarreko Udala,** natura- eta kultura-ondareari balioa ematea.

Kirola eta jarduera fisikoa sustatzea

Hainbat kirol-modalitateri eta federazioek antolatzen dituzten lehiaketei laguntzea, jarduera minoritarioak sustatzea eta kirolean errespetua eta bizikidetzaren hobetzeko programak babestea.

- 9 programa
- 35.300 €

Aranako Txirrindulari Elkarteak: 'Oinarrizko txirrindularitzaren sustapena eta integrazioa' gure lurraldean kirol hori sustatzeko; **Zalduondoko Udala:** 'Emakumezkoen pilota bultzatzeko Zeledon Saria'; **Kuxkumendi MTB,** Espainiako Ziklo-kros Txapelketa 2024; **Aukera Aniztasuna Kirol Kluba,** kirol inklusiboaren proiektua; **Gazteiz Mendi Kluba,** Arabako Mendi Garbiak; **Padelaren Arabako Federazioa,** Vital Fundazioa Padelaren Arabako zirkuitua.

Vital Eguna

Vital Fundazioak jai ekitaldi honen bosgarren edizioa bete du. Asteburu batean, erakundeak alaitasuna eta dibertsioa partekatu ditu Arabako gizartearekin, musika protagonista izan duen programa baten eskutik, kontzertu handi bat Foruen plazan eta musika Zabalgana auzoan. Hitzorduek 'kale scape' berritzaile bat izan du, 500 lagunentzako, gaueko martxa solidarioa, enpresen lasterketa eta Amurrioren eta Guardian musika proiektuak eginez atera da, berriz ere, lurraldera. Ekimenak Erronka Garbia ziurtagiria lortu du berriro, ingurumenaren aldetik jasangarria den ekitaldia dela egiaztatzen duen agiria, hain zuzen ere.



Vital

FUNDACIÓN · FUNDAZIOA